

ARRASATE

PRESS

MARAÑON GESALAGA EDURNE
LORAMENDI KALEA, 06-10.C
ARRASATE


2

Arrasate 1989ko Azaroak 24, 42. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

Stiff Little Fingers

Launbatean Kiroldegian



A r r a s a t e
K i r o l a k

Kontzeziño kalea, 8 - ARRASATE - Tfnoa: 79 46 12

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulantiak	458744
------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaleak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile burua	792072
Zubillagako Eskualde-Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581
Gasa	900 400 523
.....	797844
.....	797678

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzallearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	798777
--	--------

24 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Batman" Novedades: "El muñeco diabólico"
- Zaraia (Aretxabaleta): "La fuerza del destino"
- Gazteen egunak:
 - Hitzaldia- Bideo emanaldia: Besaide mendizale elkartearen eskutik. 7,30etan
 - Monterroneko hitzaldi aretoan.
 - Rock jaialdia: DDDP, Ultimos Recursos, Xementerio, Zakarrak. 10,30etan Monterronen.
 - Festa tropikalak: Ostarkun gaueko ordu Ietik aurrera. 3etan Lanbada txapelketa.
- Goardiako farmazia: S. Español. Iturriotz.

25 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Batman" Novedades: "El muñeco diabólico" 5, 7,30, 10,30
- Gazteen egunak:
 - Txalaparta saioa. 12etan Sebero Altuben.
 - Koadrilen bazkaria. 2,30etan Kiroldegiko jatetxean.
 - Koadrilen arteko jolasak. 4,30etan.
 - Tunak herriko kaleetan zehar. 6,30etan.
 - Antzerkia. "Tunantes del Norte" taldearen eskutik, "Cirio" kalejira.
- Rock kontzertua: "Stiff Little Fingers" polikiroldegian gaueko 9,30etan.
- Umeentzako txotxongiloak: "Bikote bihurria" Kixka taldearen eskutik.

- Goardiako farmazia: M. Corcuera. Musakola.

26 IGANDEA

- Zinea: Alai: "Batman" Novedades: "Armas de mujer" 5, 7,30, 10,15
- Zaraia (Aretxabaleta): "Mi novia es un extraterrestre"
- Bertso afaria: gaueko 9,30etan AEDn elkarteak antolatuta
- Gazteen egunak:
 - Xake partida simultaneoak. Goizeko 10etan. Kalistruetan.
 - Delta hegoa kontzentrazioa: 12etan Murutik eta Udalaitezetik. AMATen bukatuko da.
 - Jolas tailerrak. Setatik aurrera.
 - Txokolatada. 7etan Sebero Altube plazan.

27 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Batman" Novedades: "Batman" 7,30
- Goardiako farmazia: J. A. Irizar. Erguin.

28 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Batman" Hitzaldia: "Elikagai bateraezina" Lurdes Goenagaren eskutik. 3,30etan AEDn
- Goardiako farmazia: A. Ruiz. Magdalena.

29 ASTEAZKENA

- Zinea: Alai: ez dago sesiorik.
- Goardiako farmazia: A. M. Morales. San Andres.

30 OSTEAGUNA

- Zinea: Alai: "Gringo viejo"
- Zine-klub: "Anita, las danzas del vicio". 8,30etan Amaia antzokian.
- Goardiako farmazia: A. Azkoaga. Ferrerías.

Argia eguna. Igande honetan, hilak 26, *Argia eguna* ospatuko da Euskal Herrian zehar. Hau dela eta mahai ugari egongo da herrian urtekaria, aldizkariak etab. saltzen.

IKASTAROAK

Clipper programa. Arrasateko IMI zentruan. Abenduaren 11tik 15era. Izen emateak Arrasateko IMIn.

DBase III-kin programazioa. Arrasateko IMI zentruan. Azaroaren 27tik Abenduaren 1era arte. Izen ematea Arrasateko IMIn.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Arrasate Pasealekua 3 Bis, etxebehea.
20500 ARRASATE. Tfnoa: 79 71 64

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza
Bego Zubia

Publizitatea: Josune Biteri

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix
Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki
Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele
Zuazubiskar, Patxi Montero,
Juan Martin Elexpuru, Mikel
Arregi, Eukeni Olabarrieta, Arantxa
Lizaso, Gerardo Markuleta,
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,
Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila
Galañena, Blanka Jauregi, Klarion
Taldea, Joseba Vallés, Karmelo
Uribarren, Iñaki Aranburu,
Hankamotz.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Harpidetzak: Arrasate pasealekua 3,
bis, behe. 79 71 64

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 5.600 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSek ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.



Sebero Altube

Azaroaren 8an Sebero Altube jaio zeneko ehun eta hamargarren urtemuga betetzen da. Lerro hauetara ekarri nahi izan dut ospakizun honen oroitzapena, *Arrasate Press*-ek ere bere omenalditxo apala egin diezaion.

Inor gutxi egongo da gure herrian Sebero-Altube izen-deitura entzun ez duena. 1977ko otsailaren 19az geroztik Altube mundrautarren ahotan dabil, ez baizion alperrik egun hartan herriak plazarik ederrenetako eskaini. Sebero Altube plaza beharrezko topaleku bilakatu da gu guztiontzat.

Ziur nago, arrasatear askok izen deituraz aparte, Altuberen garrantziaren zergatikakoa ere ezagun duela. Zorionez, baldintzak hobea gotu zaizkigu-hein haundi batez- eta azkenengo hamar urteotan emandako jauziak mende osoan galduriko zenbait erreferentziaz berjabetzeko aukera erraztu digu. Oraindik bide gehiena korritzeko dugun arren, bagoaz aurrerantz.

Nahiz eta bere bizitzaren zatirik garrantzitsuena Arrasatetik kanpo pasatu, Seberok ez zeukan bere mundrautartasuna salgai. Horrela erakusten zuen egokiera agertzen zitzaion guztietan. Arrasatetik gartzaro gordinean irten zen, Gemikaruntz, bertako Musika Bandaren zuzendaritza irabazi zuenean. Hiri

hartan eman zuen urte mordo, 1936ko gerrak atzerrirako bidean ipini arte. Ordurako, egiazko "self made man"aren antzera, puntako linguista bihurtua zitzaigun, filosofia-riren ildo bihurrietatik ere bere saiakerak egin zituelarik. Heideger, Kierkegaard eta, batez ere Schopenhauer zituen gogoko. Pentsalari horien gaineko azterketatik argitaratu zuen Seberok "*La fonction de la douleur*" liburuxka.

Baina, noski, Altube guretzat garrantzi haundikoa baldin bada euskal linguistikan, sintaxian bati-pat, adierazi duen mailarengatik da. Euskaltzaindiaren kide izanik, gogor aritu zen garaiko eta lehenagoko idazle eta euskaltzale gehienek uste okerrez eginiko gramatika-hutsak salatzen eta biderarazten. Euskararen bizitasuna, freskotasuna maite zituen gizon harek "*Erderismos*" izeneko liburu aparta utzi zigun, euskal joskera aztertzeke oraindik indarrean darraien liburu ederra, hain zuzen.

Exilioaren garrantzitasuna hogetabi urtez jasan ondoren 1958an itzuli zen Gemikara eta bertan hil zen, 1963ko abuztuaren 27an.

Pentsalari eta linguista. Enpresa gizon, asmatzaile eta musikaria. Euskaltzale eta abertzalea. Euskal Herriak noizbehinka sortzen dituen gizaki erraldoi horietakoa.

Josemari Velez de Mendizabal

inpresio ona



Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA

inprimategi eta
autoedizio
zerbitzuak

gili gili

Iturriotz,9 Tfnoa:799457

**GIROA
AROTZAK**

Iturrioz 14, ARRASATE

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

TIO PITX

Eguneko
menua,
karta

Ola, z/g
(San Prudentzio) Bergara

Zunbeltz

Simon Arrieta Enparantza 2,
BERGARA

Cremonatik Arrasatera

-Kaixo

Italiatik idazten dizuen Arrasateko gaztea naiz eta nire izena Andoni Iñarra da.

Jadanik bi urte daramatzat Cremonan Luthier ikasketak egiten. Ziur aski galdetuko zara zer den Luthier izatea, ez bait da oso ezaguna Euskal Herri mailan, behintzat. Hara, ba; Luthier-a Bibolinak, Biolak eta Biolontxeloak egin eta konpontzen dituen pertsona da. Cremonako eskola munduan dagoen garrantzitsuenetako bat da, eta aurten 3. mailan nago.

Joan zen aste bukaeran Milanen dagoen beste arrasatear batekin izan nintzen, Gerardo Mendizabal-ekin, (koadrila berekoak gara bera eta biok) eta hizketan ari ginela esan zidan, berak *Arrasate Press* jasotzen zuela Milanen, eta dohain gainera (dohain hitza estudiante batentzako inportantea benetan). Pentsatzen hasi nintzen, eta zuei idaztea erabaki nuen. Ez dakizue zein ilusio handia ematen digun Arrasateko berriak irakurtzeak herriitik kanpo gaudenoi.

Beraz, eta posible bada, niri ere *Arrasate Press* bidaltzea eskatzen dizuet, mesedez.

Mila esker

Andoni Iñarra

**Herri Batasunaren
kandidatuen aurkako
atentatua Madrilen**

1989ko Azaroaren 20an, astelehen gauean, atentatu larria gertatu da Madrilen. Atentatu honen ondorioz Josu Muguruza Euskal Parlamentaria hilik suertatzeaz gain, une honetan hil ala biziko egoeran dagoen Iñaki Esnaola larriki zauritu dute.

Hilketa berri hau, oraindik inolaz ere argitu ez den Santi Brouard-en hilketaren 5. urtemugan izan da, egile berak egina eta gordetzaille berak babestua, ziur aski.

Herri Batasunaren Euskal Parlamentari hauek, beraien aurka atentatu gertatu baino ordu batzu lehenago, prentsa-aurreko baten bidez, beren mezu politikoaren ildo nagusiak azaldu zuten: negoziazioa, bide honetatik, Euskal Herria eta Estatu Espainolaren arteko gatazkari, modu arrazoidun eta demokratiko baten bidez, amaiera emateko.

Une goibel eta mingarriak dira hauek gure laguna eta Parlamentaria Josu Muguruza hil dutelako. Josu Muguruza, benetako abertzalea, pertsekuzio politikoa ezagutzeagatik Ipar Euskal Herrian errefuxiatu zena, bere egunean, beste hainbat errefuxiatu bezala, Estatu Espainolaren eta Frantsezaren arteko kolaborazioaren biktima izan zen, Espainiako poliziari entregatua izan zelarik.

Une latz hauetan, oso garrantzitsuak diren puntuak alde batera utzi nahi ditugu, ez gara baloratzen hasiko atentatu hau posible egin duten paktu eta era guztietako trikimaina guztiak.

Bakar bakarrik, eta ditugun indar guztiekin, herri honen emakume eta gizon guztiei dei hau egiten diegu: egoeraren larritasunaz jabetuz, urrats berri bat eman dezagun aurrerantz, gure herri honek askatasun nazionala lortzeko daraman bidean.

Lagunok, gure indarra eta kementa erakusteko unea da hau. Jasaten dugun zapalkuntza nazionala salatzaz gain, gure subirotasunaren errekonozimendua exijitu behar dugu.

Nahiko argi dagoena zera da, PSOEek, Abertzaleen aurka daraman politika jarraitzeak, gure arteko zatiketa dakarrela eta, maila guztietan, errepresioa posibilitatzen duela.

Ordua da, jadanik, elkarrekin urrats bat emateko, eraso hau, Herri Batasunaren aurkako eraso izateaz gain, Euskal Herri osoaren aurka egin den eraso bait da. Helburua finkatuta dago.

Arrasateko Herri Batasuna

Autobusik erabiltzen al duzu?




Pascual
(ikaslea)
Ez dut erabiltzen autobusik motorra daukadalako.



Esther Valgañon
(ikaslea)
Bai, normalean bai. Arrasatetik Bilborako autobus zerbitzua oso txarra dela esan nahi nuke.



Nuria
(ikaslea)
Bai, norabait joan behar naizenean autobusa erabiltzen dut, nahiz eta garestiak diren.



Jose Luis Perez de Ciriza
(langilea)
Bai, normalean autobusa Gasteizera joateko erabiltzen dut eta nahiko zerbitzu ona dela uste dut. Edonola ere ez dira bat ere puntualak.

LENIZ
AUTO ESKOLA
ARRASATE-Aldai, 9
ESKORIATZA-Arana, 13

Infernukua
Mahasterreka 23, BERGARA

TOKI ONA
bar
Matxategi 1, BERGARA

Jesus Giraldo
LISERI-APARATUA
X Izplak, endoskopia
(Lagun Aro, Gipuzkoako Foru Aldundia, Prevlasa, Adeslas (Muface) eta partikularrak
Kontsultak arratsaldeetan
Loramendi 6, 2. B (Eguzki dorrea) Tfnoa: 79 04 14 Arrasate

Memesa
79 42 22

“Duela hamar urte Liburu Azoka aitzaki hartuz Durango-ko ikastolan bildu ginen hegoaldeko lau probintzietako jendea, berrogei edo berrogeitamar lagun, Euskal Herrian Euskaraz taldea sortzeko. (...) Ikurra ere (e kiribildua) orduan erabaki zen, Xabier Zubizarreta, oraingo Arrasateko alkateak diseinatu, hain zuzen.

Bi euskal idazle ezagun: Txillardegia eta Luis Mari Mujika. Besteok, irakasle, gau eskolako arduradun, ikastolako guraso... herri bakoitzeko euskeromano ofizialak, bekokian e kiribildua burdin-goritan grabatzea besterik falta ez zitzaigunak.”

(Juan Martin Elexpuru idazle uberarrak “Hemen” astekarian)

“Tu-Lankideren hasieran gipuzkera eta mondrauetarra, hori baita nirea (erabiltzen nituen), baina denborarekin batua sartzen hasi nintzen, nahiz eta gero utzita ere eduki. Une batetan, euskara batua zela eta, “h” gora eta behera, nahiko polemika egon zen. Badakizu Don Jose Maria Arizmendiari ere ez zitzaioala “h”a hainbeste gustatzen, batetik testu zailtasuna ekartzen ziolako, eta bestetik politika kutsua ere ikusten zion. Haren eritziz politika eta euskara ongi bereiztu behar ziren.

(Paulo Letona abade bedoñarrak “TU-Lankide” aldizkarian)

“Hasiera batean (Aretxabaletako) euskaltegia Arrasate eta Aretxabaletako biztanleentzat zen; guri kontratua Arrasateko Udalak egiten zigun. 85etik aurrera, berriz, Aretxabaleta eta Eskoriatzako jendearentzat izatera pasa zen. (...) Pentsa ezazu momentu honetan 117 pertsona daudela matrikulaturik. Horietatik 15 eskoriatzarrak dira eta gainontzeko 102ak atxabaltarrak. Honexegatik Eskoriatzan ezin dugu klaserik eman, HABEK maila bakoitzeko 9 ikasle gutxienez eskatzen dituelako. (...) Jendeari burutik kendu behar zaio herriko euskara txarra dela hori, ez bait da egia. Euskara jatorra da eta idatzi eta irakurtzen ere ikasi beharra dago”.

(Arantxa Aiestaran, Aretxabaletako Udal Euskaltegiko zuzendariak “Egin” egunkarian)

Euskaldunok ondo jaten al dugu?

Ez, ez dugu ondo jaten. Euskaldunok ondo jateko ospea dugu, baina ondo jate hori jaki goxoez eta kantitatez hitz egitean aipatzen da. Zoritxarrez, askotan gustorako gauza onak direnak osasunarentzat ez dira

horren onak izaten eta alderantziz. Beraz, Euskal Herrian ez da esaten den bezain ondo jaten.

Jateko erak osasunarentzat garrantzi handia du. Elikadurak adinarekin eta aktibitate fisikoarekin egon beharko luke lotuta. Gaztaroan, pertsona hazten dabilenean, proteina ugari jan behar du, okelak etab. eta zenbat eta aktibitate fisiko gehiago egin, orduan eta hidrato gehiago jan behar da. Jendea honetan erratuta dago. Pentsatu ohi dugu aktibitate fisiko asko eginez gero okela, hau da, proteina ugari jan behar dela. Hori uste okerra da. Iharduera fisiko asko egitean hidratoak behar ditugu, patatak eta horrelakoak, hauek emango bait digute aktibitate hori jasateko behar izango dugun energia.

Jaten dugunari, ez diogu behar besteko garrantzia ematen. Arazoak izaten ditugunean, gaitzak kasualitatez suertatu zaizkigula pentsatzen dugu, zorte txarrari leporatzen diogu gaisotasuna. Ez dugu pentsatzen geure bizitzaren ondorio izan daitkeela, jaten dugunak gure osasunean eragin dezakeela alegia. Zentzu horretan janariari behar adina garrantzi ez diogula ematen uste dut.

*Lurdes Goenaga
(Mediku higienista)*



VICTOR RUIZ MELGAR

Margolaria

Erdiko kale 32, 4.

79 12 63 (9etatik 1etara eta 4etatik 8etara)

ARRASATE

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Arrasate pasealekua 3 bis, Behea ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

KIROLDEGI JATETXEA

EGUNEKO MENUA

ETA KARTA

Musakola Auzoa. 79 82 31

ARRASATE PRESS

astero zuekin

1989ko Otsailak 19 — 1.233. zenbakia — 175 pezeta (BEZ barne) / 10 libera

ARGIA

ERTZANTZA GAUR

Azaroak 26

Arrasaten ere



ARGIA EGUNA

Egin zaitez harpidedun!



GAZTEEN EGUNAK

24tik 26ra


AZAROAK 25, LARUNBATA

- Goizean ETXAFLEROAK.
- 12etan: TXALAPARTA SAIOA, Seberon.
- 12,30etan: ZANKOAK.
- 2,30etan: KOADRILEN BAZKARIA, Kiroldegiko jatetxean.
- 4,30etan: KOADRILEN ARTEKO JOLASAK.
- 6,30etan: TUNAK.
- 7,30etan: KALEJIRA: "CIRIO", *Tunantes del Norteren* eskutik.
- 9,30etan: "STIFF LITTLE FINGERS" kiroldegian.

AZAROAK 26, IGANDEA

- 10etan: XAKEA, Kalistroetan.
- 10etan: GLOBU GATIBOA, Iturripen.
- 12etan: DELTA HEGOA konzentrazioa AMATen.
- 4,30etan: BONBA JAPONIARRAK.
- 5etatik 7etara: Kalean JOLAS TAILERRAK.
- 7etatik 7,30etara: TXOKOLATADA, Seberon.
- 7,30etan: BURUHANDIAK eta GAITEROAK.

Udaleko Gazte Zerbitzuak eta herriko zenbait gaztek antolatuta



Angel Luis

prentsaren begia

OSTIRALA 17

CORREO: "Enpresa batek bakarrik aukeratu Arrasaten lurrazpiko aparkalekuak eraikitzea"

DEIA: "Zortzi milioi baino gehiago Kiroldegian hobekuntzak egiteko"

DV: Bi garbiketa-kanpaina: Aramaio erreka eta fatxadena."

EGIN: "Euskaraz leiruten eta eskribiruten ikestea"

LARUNBATA 18

CORREO: "Deba Garaiko Udal Elkarteak berriro eskatuko Arrasaten Lehen Instantsiako Epaitegia."

DEIA: "Azaroaren 21etik 26ra, Gazteriari buruzko Jardunaldiak."

DV: "Gaur hasiera emango Ligari Bigarren Nazionaleko eskubaloi-taldeak."

EGIN: "Aitor Azkargortaren familiak presoaren egoera salatu."

IGANDEA 19

CORREO: "Arrasateko Udalak Cordoba y Oro eta Obenerrekako garajeen titularitatea esku aldatzeko baimena emango."

DV: "Kirok-medikuntza pil-pilean herriko kiroldegian."

EGIN: "LAB, CCOO eta ESK-CUIS sindikatuek, Union Cerrajera bi enpresatan banatzeko modua salatu."

ASTEARTEA 20

CORREO: "CCOO, LAB eta ESK-CUIS sindikatuen kritika gogorrak Arrasateko Union Cerrajera banatzea aurrikusten duen prozesuaren aurrean."

DEIA: "Kontsumitzaileen prestakuntzarako jardunaldiak hasita."

DV: "Abetxukoko empatea (1-1) ezer gutxi."

EGIN: "Atzo gazte eta helduentzako Kontsumo-Jardunaldiei hasiera eman."

ASTEAZKENA 22

CORREO: "Arrasateko Udala Iokari Zaitzegiri omenaldia prestatzen ari."

DV: "Hiru Sindikatuk Union Cerrajeraren banatze-prozesua kritikatu."

OSTEGUNA 23

CORREO: "Arrasateko gazteek Gureako esperientzia "ez dela oso positiboa" izan uste dute."

DEIA: "'Lunes Tormentoso' filmea Amaia Zinean."

DV: "Herri Batasunaren mozioa onartu ez atzoko Pleno Berezian."

Usteak uste...

Egun arraroak izan ditugu aste honetan. Astearte goizean dutsaren ur beroak ia izoztu egin ninduen eskual parlamentariaren kontrako atentatuaren berria entzun nuenean. "Ez da posible, justu orain Parlamentura joan direnean. Esnaola eta Muguriza, gainera. Ezin liteke..."


Hortik aurrera dena harrapaladan etorri zitzaigun: gaitzezpenak, lekukoan adierazpenak, komunikabideen ahaleginak azken ordua emateko... Astearte iluntzean jende ilarak ikusi ahal ziren okindegiatan, biharamonera-ko probisioez hornitu nahian. Beste horrenbeste gertatu zen bideo dendatan.

Huelga egunak erantzun zabal izan zuen gure bailaran. Irakaskuntza, industria eta zerbitzuek itxi egin zituzten ateak. Zarata gutxi kalean, han eta hemen bezpera gaueko oihartzun itoak izan ezik.

Pleno berezira-ko deia egin zen, oraingoan jende mordo inguratu zelarik. Zerbaitek eman zidan atentzioa. Giroa gogorra izan arren, gauzak ez zirela beren onetik atera. Eritzi eta mozio desberdinak azaldu eta eztabaidatu ziren, ahotsak bat ere altxatu barik, eta azkenean botazioa. Amaierako oihuak gorabehera, bai politikoez zein publikoak oso jarrera gizabidetsua izan zuten. *Arrasate is different?* Ez dakit, baina postekoa dela uste dut.

Omenaldi eguna igaro zen eta eguneroko zurrubiloak irentsi gaitu berriro. Egun beltzek, hala ere, gerorako arrasto argitsuagoak utzi dizki-gutelakoan nago.

Joxe Aranzabal



Kontzesifto 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

LARRINGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA

IRAKASLEAREKIN

Garibal 3, 79 22 96 ARRASATE



ERAÑA

AHOLKULARITZA

OROTARAKO
ASEGURUA

Kontzesifto kalea 4, behea

Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE

Aretxabaleta antzerki taldea

Ostiralean egin zuten lehen obraren aurkezpena

Pasa den ostiralean, gaueko 9,30etan jendez gainezka zegoen Aretxabaletako Zاراia Zinema, bertako Antzerki taldearen debuta zuzenean bizitzeko.

Jose M. Sarasuaren zuzendaritzapean honako antzezle hauek ari dira: Paulo Urkia, Dunixe Zuazabeitia, Jon Antxia, Aitor Antxia, Mari Nati Olabe, Imanol Aginagalde, Dolores Akizu eta Igone Zubizarreta.

Oraingo honetan "Mutil Zaharra" izeneko lana prestatu dute, Toribio Alzagak idatzi eta Mari Karmen Abasolok moldatua. Izenburuak berak aditzera ematen duen bezala, semea derrigorrez ezkondu



nahi duten senar-emazte batzuen istorioa kontatzen zaigu hemen.

Ikusleak gustora lehen emanaldi honen ondoren, eta sarreran bildutako diru mordoxka Aretxabaletako atzeratuentzat emango dela gogoratu. Zorionak, eta zorte on etorkizunerako!

"Ayer y hoy del valle de Aramaiona"

Jesus Mari Elejalde Plazaolak idatzitako liburua kaleratu berria du Arabako Foru Aldundiaren Kultura sailak. Lan honek 467 horrialde ditu. Juan Leibarrek eginiko aurkezpena eta laguntzaile lanetan S. Aspe, M. Mendiialdua eta P. Unbarrena ari izan direlarik. Liburudendatan, beraz, Aramaiori buruzko lan xehea.



"Jazten" aldizkariaren aurkezpena

Astearte arratsaldean, AEDren egoitzan aurkeztu zuten jaioberria den *Jazten* aldizkaria. 1991. urtearen amaierarako 6 zenbaki atera nahi dituzte, harpidetza 1.500 pta.koa izango delarik, hala nahi duenarentzat.

Jazten

aldizkaria

Egin zaitez Jazten-en harpidedun (Bete txartela eta Arrasateko 158 postakutxara bialdu)

JAZTEN aldizkariaren harpidedun egin nahi dut 1991. urtearen amaiera arte.

IZEN-ABIZENAK

HELBIDEA

HERRIA TFNOA

BANKU EDO AURREZKI-KUTXA

KONTU -ZENBAKIA

ERRENBOLTSOZ

Lehen zenbakia bidaliko dizugu? Sinadura

Bai Ez

Arrasaten, Gazteen egunak

Hainbat ekitaldi prestatu dituzte aste honetarako

Azaroaren 21etik 26ra, makina bat ekitaldi antolatu dira Arrasaten "Gazteen egunak" egitarauaren barne.

Lehenengo aldia da Arrasaten horrelako zerbait aurrera ateratzen dela; ideia Gazteria Batzordeak izan bazuen ere, aipatu beharra dago herriko talde eta hainbat gaztek ere bultzada ederra eman diotela.

Asmoa, monotonia hausteaz aparte, jai giroa kaleratzea jendearen parte hartzea bilatuz. Jai giro berezia gainera, koadrilen arteko harremanak sendotzea bilatzen delarik.

Dena den, egitasmo zabala burutu da, eta festaz gain beste mota bateko ekintzak ere kontutan hartu izan dira. Antzerkia, rock jaialdia, tunak, txalaparta, hitzaldiak, bideo-emanaldiak, xake-txapelketa, delta-hegoa, etab.

Aipatu beharra dago ere, larunbatean musika zaletuek (musika "kañeroaren" zaletuek), zita garrantzitsua dutela Musakolako kiroldegian "Stiff Little Fingers" Irlandarrekin.

Alde batetik zein bestetik, seguraski gazteek aurkituko dute programaren barruan gustokoa duten zerbait. Lehenengo saio honen ondoren, helduko dira besteak!



Egitasmo borobilla herriko gazteentzat

Ostirala 24

— 7,30etan Besaide Mendizale elkartearen eskutik hitzaldi-bideo emanaldia.

— Gaueko 10,30etan Monterroren rock jaialdia:

— Goizeko ordu batetatik aurrera Festa tropikala, Ostarkun.

Larunbata 25

— 12etan, Seberon, Txalaparta.

— 12,30etan, Zankoak.

— Eguerdiko 2,30etan, koadri-

len bazkaria kiroldegian.

— 4,30etan, koadrilen arteko jolasak.

— 7,30etan, kalejira "Tunantes del Norte" taldearen eskutik.

— 9,30etan, "Stiff Little Fingers" eta SS-77 taldeen jaialdia.

Igandea 26

— 10etan Xakea Kalistroetan.

— 12etan Delta-hegoa. Murutik eta Udalaizetik irtengo dira.

— 7etan, Txokolatada Seberon.

LORAMENDI



KIROLAK



Anorakak

Lumatxak

Sky
ekipamenduak

AUKERARIK
ZABALENA

Eskatu katalogoa

**M
A**

ARENAZA

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA

**ARRASATE
PRESS**

79 71 64



Zubillagako suhiltzaileen parkea

Oñatiko suhiltzaileak

Kexu dira gaur egungo lan egoeragatik

Oñatiko suhiltzaileen parkea 1986ko ekainean jarri zuten martxan. Hasieran 20 langile baziren ere, sei hilabeteko proba batzuren ondoren 18 besterik ez ziren gelditu. 1988ko azaroaren 28an Diputazioak zazpi suhiltzaile berri kontratatu, eta gaur egun 25 ari dira bertan sargentuaz aparte.

Oñatiko parkeak honako herri hauek ditu bere ardurapean: Oñati, Elgeta, Bergara, Antzuola, Soraluze, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzaga.

Orain gutxi aditzera eman dutenez, suhiltzaileak ez daude ados

gaur egungo lan egoerarekin. Kexu dira, alde batetik jende falta nabaritzen dutelako, eta bestetik zortzi orduko errelebotan lan egin behar dutelako.

Horrela, eskaria luzatu diote Diputazioari baldintza berriak onar ditzan. Suhiltzaileen asmoa negoziaketari eustea litzateke; baina hori bai, Diputazioak uko egiten badio elkarrizketari prest daude mobilizazio ezberdinak aurrera eramateko. Asteazkenean Donostian prentsaurrekoa ematea espero zuten, baina Greba Orokorra medio, prentsaurrekoa beste egun baten egin behar.

Euskal Prentsaren Eguna

Igande eguerdian, "Argia Eguna" dela eta, mahai handi bat jarriko da Portaloi inguruan. Mahai horretan Argiakoeak egin berri duten "Urtekaria 89" egongo da salgai, aldizkariaren hainbat alerekin batera. Euskal egunkariaren aldeko sinadurak ere bilduko dira. Argia etxean jaso nahi duten guztiek aukera aparta dute orain urte osorako harpidetzak egiteko. Giro alairik ez da falta.

Salmonella Arrasaten

Biteri egoitzan dauden Eskola Politeknikoko zazpi ikasle pasa den astean Salmonellak jota suertatu ziren. Bost ikasle beren etxeetan sendatu baziren ere, bi kasu larri eman eta ondorioz horiek Bizkaia eta Nafarroako ospitaletara eraman behar izan zituzten. Gogor ari dira orain Osakidetzakoak gaixotasuna non sortu zen jakin ahal izateko.

Jaiotzak

Amador Santiso *Lara*, Azaroaren 10ean
Albes Garitano *Amaia*, 12an
Garcia Gimber *Ruben*, 15ean
Pagaldai Morras *Olatz*, 15ean
Pagaldai Morras *Eneko*, 15ean
Olmo Isasmendi *Joseba*, 15ean
Sala Rincon *Oihana*, 16an.

Ezkontzak

Nicolas Arazuri Aparicio & Ana Isabel Segundo Lopez. Azaroaren 18an, zibilez
Juan Ignacio Zeziaga Bolinaga & Maria Begoña Garcia Azkoaga. 18an, zibilez



OMU mosaikoak

Zeramika-erakusketa: *Otalora 1ean*
Biltegi berria: *Meatz-Erreka*

ARRASATE

KLINIKA DENTALA

DOANEKO AURREKONTUA

* Odontologia orokorra

* Protesi finkoa

* Protesi mugikorra

* Haur eta helduentzako ortodontzia

Iturriotz kalea, 7 bis-behea. Tfnoa: 79 73 88 ARRASATE

INFORMATIKA AKADEMIA

🍏 Ikastaroaren iraupena: 30 ordu

🍏 Talde murriztuak, gehienez lau ikasle

🍏 Oso klase praktikoak

AUSART ZAITEZ!!!

Dr. Bañez 13an gaude (San Andres)

Tfnoa: 79 18 08 ARRASATE



Kontsumo tailerren inaugurazioa

Ume eta helduentzako zortzi ikastaro ezberdin

Astelehen goizean zabaldu ziren Kontsumo tailerrak, Monterroneko gela ezberdinetan; lehenengo aldia da Deba Garaian horrelako esperientzia aurrera eramaten dela, OMICKIUB eta Arrasateko Udalaren laguntzaz.

Alde batetik Arrasateko ikastetxeetako haurrak hurbilduko dira bertara, goizetan 9,30etatik 12,30etara eta arratsaldean 2,30etatik 5etara. Haur horiek 15-20ko taldetan banatu nahi dituzte, Eskoriatzako Irakasle Eskolako 14 monitoren ardurapean. Asmoa, talde

horiek tailer guztiak ezagutu ditzatela, horretarako gutxienez ordu t'erdia eman beharko dutelarik ikastaro bakoitzean.

Astearte, asteazken eta ostegunetan bestalde tailerrak zabalik egongo dira hala nahi duten helduentzat, 6,30etatik 8,30etara.

Kontsumo tailerretan honako ikasgai hauek jorratuko dituzte: gaztagintza, supermerkatuak, tabakoa eta bere publizitatea, OMICKIUB bulegoa, paper birziklatzea, etxeko istripuak, azterketa konparatiboak, dieta eta ordenadoreak.

Arazoak UCEMen

Pasa den asteko asteazkenean, UCEMeko zuzendariak sindikatu-ekin izandako bileran, enpresa honen desagerpena eman zen ezagutzera. Gauzak horrela, etorkizunean hiru talde ezberdinetan banatuko da egitura: Olateko ur-jauziak, "Corporacion UCEM.", eta Transformatu Metalikoak hain zuzen ere.

Dena den, CCOO, LAB eta ESK-CUIS sindikatuak ez datoz bat egitasmo honekin, eta langile guztiei gomendatu diete ez ditzatela enpresa berriak emango dizkien dokumentuak sinatu.

Sindikatu hauen esanetan, birmoldaketaren ondorioz zortzi urtetan 960 langile izatetik 277 izatera heldu dira (8 Olaten, 99 Zerrajeran eta 170 Transformatu Metalikoetan). Ez daude ados enpresaren politikarekin, eta egunotan batzarra burutu nahi dute langile guztiekin, zer egingo duten erabakitzeko.



Z a r r a o a

apaindegia

lurrindegia, opariak,
jostailuak



Gabon hauetan...

ZURE OPARI DENDA

Barrenkale 27, BERGARA

AEJ

URKIOLA
argazkilaria

Tfnoa: 79 39 20 ARETXABAETA

ARRASATE
PRESS

79 71 64.



Udalaren pleno berezia

J. Muguruzaren hilketa salatzeneko mozioa onartu

Madriren gertatutakoak eta gero, Arrasateko Udalak Pleno berezia burutu zuen asteazken eguerdian Monterronen. Kasu hauetan ohizkoa den bezala, jende ugari hurbildu zen bertara.

Hamabietan eman zitzaion hasiera, Udaleko idazkariak aurkeztutako bi mozioak irakurri zituelarik: Alde batetik HBrena, eta bestetik PSOE, EAJ, EA eta EEK elkarrekin egindakoa.

Nabari ere nabaritu zitzairen alderdiei istilurik gabe amaitu nahi

zutela plenoa. Guztiak ere ados jarri ziren Josu Muguruzaren hilketa salatzeneko orduan, nahiz eta aukeraturako modua ezberdina izan.

Irakurketaren ostean, Xabier Zubizarretak hitz batzuk esan, eta EEko Aitor Orobengoak ere beren jarrera argitu nahi izan zuen. Halere, politikarien arteko eztabaida hor gelditu zen, besterik gabe. Publiko artean zeuden bi pertsonak ere hitza eskatu zuten, batek Orobengoari galdera luzatzeko eta besteak bere eritzia adierazteko.

Mozio bateratua

“Madriren Parlamentarien aurkako atentatuaren aurrean, Josu Muguruza hilik eta Ifaki Esnaola larriki zauriturik gertatu zirelarik, Udal honek osoko bilkuran ondorengo mozioa onartzen du.

1. Bete-betean atentatu terrorista hau salatzea, demokrazia, askatasuna eta bizitza eskubidearen aurka doalako.

2. Josu Muguruzaren senideei gure doluminak azaltzea eta Ifaki Esnaola aguro sendatzeko nahia erakutsi.

3. Ikerketan hiltzaile eta bere laguntzaileen detentzioa eman dadila exijitzea, legearen indarra euren gain erori dadin.

4. Zera berresan nahi dugu: Bide demokratiko eta baketsuen bidez bakarrik bizi ahal izango garela bakean eta askatasuanean”.

Mozio hau PSE-PSOE, EA, EAJ eta EEK sinatu, eta esan bezala Udaleko plenoan onartu zuten. Botazioan, lau zinegotzi eta Alkatea HBren mozioaren alde, eta beste hamahiruak mozio bateratuaren alde. Jendearen oihu eta karraxien artean hustu zen Monterroneko bilera aretoa

GAURKO S.A.
INDUSTRIA ETA AUTOMOZIOTAKO LABAINGARRIAK BERE INSTALAZIO BERRIETAN
 Kataideko Industrialdea 1 eta 2
 Musakola z/g 51 postakutxa. Tfnoa: 79 46 33 78 Fax: 798411 ARRASATE

EPELDE
argazki denda
 Iturriotz 24

ARRASATE PRESS
 79 71 64



Arrasate protesta bizian

Greba orokorra eta istilu gogorak herrian

Madrileko erasoaren berri izan bezain laster hasi ziren protestak Arrasaten. Greba Orokorra asteazkenerako burutu nahi bazen ere, asteartean bertan Institutua eta Eskola Politeknikoa kalera irten ziren. Arratsaldeko 3etan San Viatorren bonba mehatxua jaso, eta hauek ere klaseak bertan behera utzi behar izan zituzten.

Lehenengo manifestaldia eguerdian burutu zen, 700en bat pertsona elkartu zirelarik. Dena den, istilu gogorrenak arratsaldeko manifestaldiaren ondoren gertatu ziren. 1.200 pertsonatik gora irten ziren kalera; Muxibarren eta Lau-Bideko semafo-

roetan suzko barrikadak egin zituzten, eta ondorioz Ertzanitzak parte hartu behar izan zuen. Hamaikak arte, izugarritzko iskanbila.

Asteazkenean, goizeko lehen orduetatik barrikadak agertu ziren toki estrategikoetan. Greba eguna zen, eta aipatu behar Arrasaten ia %100a irten zela kalera. Udaleko plenoaren ostean mila pertsona inguru elkartu eta manifestaldi bake-tsua eraman zuten aurrera, istilurik sortu gabe. Arratsaldeko hiru t'erdietan lau autobus irten ziren Arbolapetatik Bilbora, eta auskalo zenbat auto partikular, beren kasa. Esan bezala, herria protesta bizian.

Iruditan



NUTRISAN

Nutrizio-osasun eta kirol-medikuntzako zentrua
Telleria Dra., Serrano Dra., Elbusto Dra.

Gizeneria, zelulitisa, kolesterola, azido urikoa, diabetea, hipertentsioa...

Kirolaren egoera fisikoaren balorazioa.

Lehiaketa-aurre eta osteko eta entrenamendu eta entrenamenduko garaiko dietak

KONPUTAGAILUZ PERTSONALIZATURIKO DIETA

ANALISI KLINIKOAK

ELEKTRO-ESKULTURA


TONIFIKAZIORAKO FUNTZIO ANITZEKO OHEA

Kontsultak: 10etatik 1etara

4etatik 7etara (Aurrez txanda eskatuta)

Kale Aldea 11, behea, 79 65 78 ARRASATE

Erdiko kale 79 19 37



Ferrerías 79 87 62

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua

Tfnoa: 79 73 00 - 79 83 96

Telefax: 793412

Moda desfilea

Abenduaren 1ean San Viator ikastolako 2. BOKo ikasleek moda desfilea egingo dute. Urtero burutzen duten ekintza honen bidez, ihauteri inguruan eskiatzera joateko dirua lortu nahi dute. Desfilea antolatzerakoan Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako denden laguntza izan dute. Ostiralean, beraz, arrasaldeko 7etan. Sarrera 200 pta.

Stiff Little Fingers

Amaitzear dauda larunbateko jaialdirako salgai jarri ziren 4.000 sarrerak. Gogoratu bertan *Stiff Little Fingers* irlandarrak eta *SS-77* arrasatearrak izango ditugula. Zirrara handia sortu du jaialdiak gazteen artean, eta justu-justu geratuko dira sarrerak takilarako. Azken ordukoek kale egin dezakete. Zurrumurrua bat besterik ez bada ere, agian igandean beste emanaldi bat antolatuko dute; agian...

Ferialeko ikastola


Ikastolako zuzendaritzak gutun bat luzatu die gurasoei egun haue-tan. Aditzera ematen dutenez, Udaletxean harrera ona bai, baina gero gauzak motel joaten dira. Etendura ikusten dute agindutako hitzen eta ekintzen artean, hau da, beraien ustez arazoari ez zaio ematen behar duen erabateko lehentasuna. Negua gainean, eta haurrak oraindik ere baldintza eskax-eskaxetan!

Hitachi-k Gelma erosi?

Japoniako Hitachi talde industrialak akordio tekniko-komertzial baten sinaketa negoziatuko omen du hil honen amaieran Gelma enpresarekin, sozietatean partaidetza izateko aurrepauzu bezala.

Txandaka

Tiro pitxoiari ez



Iñaki Jauregiarzo*

Ekologistok ez gara dibertsioa eta gozamina gorroto ditugun zapaltzaile burugorrrak, ez horixe.

Jolasa, dibertsioa, eta inguruarekiko errespetuzko harreman gozagarria maite dugu. Hau da, nork nahi duenarekin maiztasunean goza dezala, dibertsio, atsegin eta garapen pertsonalaren iturri bait da.

Gure ibaiak garbi egon daitezten, Urbia eta antzeko parajeek duten aberastasuna galdu ez dezaten, nuklearizazioaren aurka, basoak zuhaizgabetzearen kontra, lanean dihardugu.

Hemengo lora eta animaliak, beharrezko errespetoz, basbestu nahi ditugu, eta baita ozonoa ere.

Esan bezala, dibertsioa maite dugu baina baldin eta horren ondorioz ingurugiroa, natura, abereak, landareak... desegiten ez badira. Ez dugu eskatzen tirorik ez botatzeko. Abereak

bestarik gabe, dibertsio hutsagatik hiltzearen aurka gaude. Hau dela eta, ehiza eta uso tiroketen aurka gaude, usoek hegaz egiteko eskubidea bait dute, eta gainera gizonaren irrazionaltasunaren

ondorioz, natura egoera larrian dugu.

Egoera larri eta beltz honi irtenbideren bat eman nahi baldin badiogu, denok, guztiok, gure ohiturak zalantzan jarri eta aldatu beharrean gaude. Adibidez, negargarria da ekologi gaien inguruan instituzioek hartutako jarrera, zenbait udalek uso tiroketak antolatu edo onartzen bait dituzte herriko jaietan.

Gure ustez, aldatu beharrezkoak aldatzeko orduan, udalek aintzindari izan behar dute, naturaren aldeko jarrerak bultzatuz eta kontrako direnak galeraziz, hala nola, uso tiroketak galeraziz ekologi delitua bait da.

(* EKI (Euskadiko Antinuklear eta Ekologista Komiteak)

Landaluze urdaitegia

Espezialitateak:

Urdaiazpikoa
Iberikoa
Ahate-gaiak

Foie
Confit
Bloc

Serranoa
Paletilla
JATETXETARAKO SALMENTA

Magret
Pate

Iturriotz kalea 7, Tfnoa: 79 14 86 ARRASATE


Izen propioak



Waloniako hamazortzi lagun belgiar egon ziren inguruko kooperatibak astebetez bixitatzen. 83an eta 86an etorriak zirenek, krisia gainditzeko kooperatibek erakutsi duten ahalmena azpimarratu zuten.

■ **Juan Luis Azkarate, 24**, arrasatearrak Citroen AX berebila, Loire eta Pariserako bidai ordaindua eta 30.000 pta. irabazi zituen bere lagunarekin batera ETB1en *Kalejira* saioan. Juan Luis kazetaria da, Leioan ikasi zuen eta Egin-en "*Debaldea*"n eta *Arrasate Pressen* egin izan du lan. Datorren astean soldaduzkara doa.

Eroskik zabaldu berria duen **Maxian jatetxe** batentzat lekua ere gorde dute. Gosariak, bazkariak eta pintxoak, goizeko 9etatik gaueko 9etara. **Joseba Arabaolaza** eta **Heriberto Lasa** izango ditugu bertako arduradunak. On dagiela betara hurbiltzen diren guztiei!



■ **Felix Lopez, 34**, espetxeratu arrasatearra Ibizatik Huescako espetxera eraman dute. Felixek Magisteritza ikasketak presondegian amaitu ostean, Psikologia ari da ikasten UNEDen bidez. Espetxeratu zutenetik birritan operatu dute belarritik.

■ **Joxe Arriaran, 63**, gure pilotatxapeldun ohiak omenaldi beroa jaso zuen Azkoitian, beste hamalau txapeldunekin batera. Joxe birritan jantzi zuen txapela banakako eran, 1955 eta 56an, Soroa eta Gartzia Ariflori irabaziz. 1956an binakako txapelduna izan zen, Pako anaiarekin batera. Denetara 29 urte egin zituen pilotan profesional moduan jokatzeko.

Uztailaren 29an, Musakolako San Isidro eleizan ezkondu ziren **Carlos Gomez** eta **Arantxa Paunero**. Zorionik beroenak senar-emazteei!



Epelde

■ **Eduarne Iturbe, 34**, preso arrasatearra Cordobatik Lugoko presondegira eraman dute. Eduarne Felix Lopezen emaztea da. Madrilen harapatu zituzten eta dagoeneko lau urte t'erdi darama espetxeratuta. Orain arte, Yeserias, Carabanchel, Ceuta eta Cordoban egon izan da. Geografia eta Historia ari da ikasten.

LURRINDEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate



KILI-KOLO

Ferrerias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE

Arrasateko gazteak gaur

Langabezia baxua izan arren, gehienak gurasoen etxeetan bizi

Pertsonak sailkatzeko askotan adinaren erizpidea erabiltzen dugu, haurrak, gazteak, helduak edota zaharrak bereiztuz. Edonola ere, gizatalde hauek ez daude pertsona homogeneo eta antzekoek osatuta. Arrasateko Udalak aurreko Arrasateko gazteei buruzko ikerketa soziologikoa agindu zuen, gazteen egoera, behar eta nahiak zehazki jakiteko asmoz eta emaitzak dagoeneko kaleratu dira.



Neska baino mutil gehiago dago adin honetan

Gehienak gurasoen etxeetan

Ikerketa Soziologikoa, Uztailaren bigarren eta hirugarren astean egin zuen INVESCO elkarteak. 14 eta 30 urte bitarteko herriko 381 gazte inkestatu zituen eta jasotako emaitzek Arrasateko gazteen egoera isladatzen dutelako %95,5eko ziurtasuna dute.

Inkestaren arabera, gazteak bi multzotan bana daitezke; batetik 14 urtetik 25 urte bitarteko gazteak ditugu, gehien bat ikasten dihardutenak eta bestetik 26tik 30 urte arteko gazteak, jadanik lanean aurkituko ditugunak. Talde hauek bizimoduz, zein azaltzen duten behar eta nahiez nabarmenki bereizten dira.

Arrasateko gazteen gehiengoak ezkongabea da, nahiz eta emakumeek ezkontzeko joera handiagoa agertu. Aipatzekoa da, Arrasateko gazteak nagusiki gurasoen etxeetan

bizi direla, langabezia oso baxua izan arren, %9a, ikasten aritzean edota behin behineko kontratoak izatean ez dute eta, ahalbide ekonomikorik etxetik alde egiteko.

Ikasketa mailan ere, talde bien artean desberdintasun nabaria aurkituko dugu. 26-30 urte bitarteko gazteen ikasketa maila OHO edota

koen ustez, inguruan enpresa ugari egotea da, enpresa hauek behin behinako langile ugari kontratatatu dutelarik.

Irakurri, kalera irten eta kirola egin

Arrasateko gazteek beren aisialdia kirola egiten, irakurketan edota tabernetan ematen dute. Normalean ekintza hauek herrian burutzen dituzte, lagunekin -gazteenak- zein senitartekoeekin -helduenak-. Kirola egiteko zaletasuna mutil gazteengan dago hedatuen. Kirola egiteko polikiroldegia aukeratzen dute gehienek, beroni konponketa eta zerbitzu gehiagoren beharrean somatzen badiote ere, zenbait kirol burutzeko ez bait dago gune aproposik. Bestalde tabernetara, gehien bat, 18-25 urte bitarteko gazteak joan ohi dira.

Gazteek balorazio baikorra egiten diete Udalak aisialdia betetzeko antolatzen dituen ekintzei zein eskaintzen dituen zerbitzuei. Gazteek begi onez ikusten dute zerbitzu ezberdinek duten zabaltasuna, hau da, edozeinek har dezake Udaleko zerbitzu esberdinetan parte inolako konplexu edo beldurrik gabe. Edozein modutan ere, zerbitzu batzuk, zeramika eskolak esaterako, saturazioa jasaten dutela aipatzen da.

Gazteek ez dute inolako interesik agertzen elkarteetan erantzunkizunik hartzeko

FPkoa den bitartean, gazteagoen artean erdi eta goi mailako ikasle ugari aurkituko dugu.

Lanean 25 urtetik gorako gazte ugari badago ere, emakume baino askoz gizon gehiago dago lanean. Herrian horren langabetu gutxi egoitearen arrazoia INVESCO elkarte-

Gazteek herriari kultur gune edo zerbitzu gehiago eskatzen diote eta ekintza bereziak burutzeko lokalak, musika, artea... Dena dela, inkestaren emaitzek ez dute argitzen gazteei lokalak eskaintzean, erabiliko dituzten ala ez, borondatea baino ez dute azaltzen eta.

Norbekeria nagusi

Arrasatear gazteen parte hartze soziala neurtzerakoan, aipatzekoa da elkarte edota lagunartean parte hartzeko agertzen duten interes eza, gazteen %73ak ez bait du inolako elkartetan parte hartzen. Elkarteren batean sartutakoak 18 urtetik behar-rakoak eta 25etik gorakoak ditugu, nagusiki kirola, musika, skaut-a eta euskararekin lotuta dauden elkartee-tan.

Bestalde, gazteek ez dute inolako interesik agertzen elkartean eran-tzunkizunik hartzeko. Hau da, inte-resatzen zaizkien ekintzetan bakarrik hartzen dute parte, baina berauen antolaketan esku hartu gabe edota elkarteen ardura beren gain hartu gabe. Jasotako emaitzen arabera argi eta garbi ikusten da herriko gazteek konpromezurik es-katzen ez dieten ekintzak nahiago dituztela.



Gazteek ez dute elkartean parte hartu nahi

Edozein modutan, beraiek parte hartzen ez badute ere, begi onez ikusten dituzte elkarte desberdinek antolatutako ekintzak, herriarentzat onuragarri direla uste bait dute. Herriko elkarte gehienak eta egiten

dituzten ekintzak ezagutzen dituzte, balorazio baikorra egiten dietelarik, taldean egin daitezkeen ekintzak bultzatu, herria entretenigarri bihurtu eta interesgarri diren ekintzak bideratzen dituztelako.

Gaztetxe autogestionatuaren nahia

Arazoi ezberdinak zirela me-dio, Arrasaten duela zenbait hilabete ixki zen "Gaztetxea", denon ahotan izan genuen.

Gaztetxearen eta bertan parte hartu zuten gazteen aurka kritika ugari jaurti zen; eta era berean, Arrasateko Gazte Asanbladak ere, makinatxo salaketa egin zion Udalari.

Denbora pasa da, gauzak baretu dira eta jadanik inork ez du hitz egiten Gaz-tetxeaz. Edonola ere, kaleratu berri den ikerketak herriko gazteek Gaztetxeaz duten eritzia isladatu nahi izan du. Gazteek, oro har, nahiz eta bertan inoiz ez egon, gaztetxearen ezagupen zabala dutela esan daiteke.

Arrasatear gazteriaren talde handi bat -maiztasunez ez bada ere- gazetxean egona da, 18 urtetik 21 urte bitarteko gazteak, bereziki mutilak izanik gehien joaten zirenak. *Gurean* kokatutako Gaztetxea, espero zitekeen bezain esperientzia ona ez zela izan azaltzen dute gehienek.

Beren ustetan, zentrua txarto gestio-natua eta antolatua egon zen, bertan sortu ziren droga arazo, interes pertsonal eta Udalak agertu zuen interes ezak zirela medio.

Edonola ere, ezin esan daiteke Gaz-tetxeak porrot egin zuenik, esperientzia gisa har daiteke eta erizpide ezberdinez antolatua egonez gero, Gaztetxea espe-rientzia interesgarria izan daitekeela

uste bait da.

Gaztetxeak ohizko erakundeek betetzen ez dituzten zenbait behar betetzeko balio beharko luke, hala nola, Udaleko gazteen biltoki izan -18-24 urte bitarteko gazteek lagundutakoa-, beste ekintza batzuen artean, musika eta antzerki ekitaldiak egiteko aukera emango liekeena.

Gazteen ustez, Gaztetxeak au-tonomoa behar luke izan, gazteak izan beharko lirateke antolamenduaren eta ekintzen antolaketaren ardurandun, baina Udalak finantziatua. Arrasatear gazteen ustez, berai kokatzeko leku aproposa, *Gurea* zinema izango li-tzateke, behar dituen konponketak egin ondoren

CE

ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 - 79 14 25


TITARE

LENTZERIA FINA

Olarte kalea 8,
ARRASATE

EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 89

FINALERDIAK



AZPEITIAN

Azaroaren 26an, igandea
Izarraitz pilotalekuan

Goizeko 11,30etan

Iñaki Murua

Jon Sarasua

Mikel Mendizabal

Millan Telleria

J. M^a Areitio -

"Mañukorta"

"Loidisaletxe II"

Jose M^a Lertxundi

Arrasaldeko 5etan

Andoni Egaña

Jon Enbeita

Imanol Lazkano

Euskitze

Jokin Sorozabal

Luis Otamendi

Nikolas Zendoia

Angel Larrañaga

GURE AMETSA jatetxea

bodak

banketeak

negoziotako otorduak

Tfnoa: 79 20 97 GATZAGA



Fotokopiak
Enkuodernazioak
Planoen erreproduzioa
Offseta
Ferrerías 23.

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI 3,

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE

Iosu

argazki denda

Argazkilaritzarako
materiala.

Erreportaiak.

Bisuteria.

Olarte kalea 11, Tfnoa: 79 82 60

ARRASATE PRESS

astero zuekin

“Aramaion baseritik ia inor ez da bizi”

Jesus M. Elejalde “Ayer y hoy del valle de Aramaiona” liburuaren idazlea

Jesus Mari Elejalde, Aramaioako parrokoa dugu. Aramaioarra izatez, bere bizitzako urterik gehienak eman ditu herrian nahiz eta Ecuadorren hainbat urtez bizi izan. Aramaioako istorio eta berrien jakitun, duela gutxi “Ayer y hoy del valle de Aramaiona” liburua kaleratu du. Solasaldi alaiko gizona, Aramaio inguruko berri ugari kontatu digu.

— *Nolatan bururatu zitzaizun Aramaiori buruzko liburu hau idaztea?*

— Aintzinako kontuak beti gustatu izan zaizkit, batez ere gure herrikoak. Orain dela sei bat urte, Aramaio eta Uribarriko bideari buruzko lan txikia egin nuen. Lan hura Arabako Foru Aldundiak argitaratu zidan eta berau prestatzen ari nintzela beste gauzatxoren bat egiteko material ugari aurkitu nuen. Beraz, animatu eta Aramaioko kondairari buruzko lan hau egitea pentsatu nuen.

— *Nori zuzendua dago?*

— Nire asmoa batez ere, aramaioarrei zuzendutako liburua egitea izan da, Aramaio bertatik kanpo ez bait da izan oso herri garrantzitsua. Aramaioarrengan pentsatuz eginiko liburua duzue. Edonorrentzat balio lezake liburuak, baina ez dut uste kanpotarrei gure etxeak noiz eginda dauden, Erdi Aroan zein bizimodu zeukaten eta, jakitea oso garrantzitsu suertatuko zaienik, inguruan antzeko bizimodua zeukaten eta.

— *Edonola ere, aramaioarrei zuzendutako liburua izanik, oso harritzen gaitu berau erdaraz idatzita egoteak*


— Bai, nire lehen asmoa euskaraz kaleratzea izan zen. Edozein modutan ere, liburua Arabako Foru Aldundiak kaleratu du, eta Araban euskaraz gutxi hitz egiten denez, ezezkoa eman zidaten. Euskaraz eta gaztelaniaz kalera-

tzea ere pentsatu nuen, baina aurrekonturik ez zegoela eta, ez zen posible izan. Azkenean gaztelania hutsean kaleratu da.

Momentu honetan Aramaioko ikastolarentzat eta beste zenbait ikastolarentzat laborpen antzekoa euskaraz kaleratzeko asmotan gabil-tza; dena dela, ez dakigu egingo dugun ala ez. Garbi dago haurrentzako liburua ez dena, azterketa lan sakona bait da.

— *Aramaion bernadako eskubidea zeukan jauntxo bat egon omen zen, egia ala kondaira hutsa da?*

— Aramaion jauntxo ugari egon zen, Barajuengo azken jauntxoak gaiztakeria asko egin zuen. Barajuengo konte bezala agertzen da, baina konte ezin izan, handik 300 urtera eman bait zioten



Jesus Mari Elejalde

zein aldaketa izan du Aramaiok?

— Aramaiok Euskal Herriko nekazal herriek izan duten aldaketa berdina izan du. Bere historian hiru aldaketa nagusi izan ditu. Lehen, burdin-olak sortu zirenean jasan zuen. Oso garrantzitsua izan zen, batez ere Ibarra eta Olaeta auzoentzat. Ibarra 32 burdin-ola izatera heldu zen. Honek aldaketa gogorra ekarri zion herriari.

Burdin-olak desagertzean jasan zuen Aramaiok bigarren aldaketa. Burdin-oletatik 100 familia bizi iza-

egin dira eta erabat bestelako bizitza dute aramaioarrek.

— *Aramaio ondo ezagutzen duzunik ezin ukatu edonola ere, Ertamerikako herri ere baduzu, han bizi izan bait zara zenbait urtez, nola ikusten duzu han bizi duten egoera, droga kontua dela eta?*

— Hego Ameriketako Mejikon hasi eta Argentinara aldaketa gutxi dagoela esan daiteke. Ni han bizi nintzela, momentu hartan hasi ziren lehen petroleo putzuak zulatzen. Euskal Herrira etorri eta bost urtetara itzuli egin nintzen. Jadanik dena petroleo putzuz josita zegoen. Errepideak askoz hobeak ziren, baina herria askoz ere txarrago bizi zela konturatu nintzen.

Gobernuek lehen dibisak lortzeko nekazari, kafea, kakaoa etab. landatzearen laguntzak ematen zizkieten. Petroleoarekin, dibisak beste bide batetik lortzen zituzte-nez, nekazari laguntzeari utzi zioten. Jakina, nekazari bizimodua nolabait atera behar eta koka eta antzekoak landatzeari ekin zioten. Bestalde, herriak ez du ikusi hor sortu izan den dirua, multinazionalak edota boterean egon izan diren taldeek eraman dute dena.

“Arabako Diputazioak ezezkoa eman zion liburua euskaraz kaleratzeari”

bere ondorengoei titulua. Dena dela, zapalketa handiak burutu zituen. Bernadako eskubidea ez zuen inoiz izan, indarraren eskubidea, aldiz, bai. 1489an epaiketa jasan zuen eta 25 kexari aurre egin behar izan zien. Salaketen artean, zenbait nesken bahiketara agertzen da -izen eta guzti-. Jauntxoaren etxera eramanak izan ziren, bortxatuak eta bertan zenbait urtez bizi izatera behartuak.

— *Bere historian zehar*

tetik, bat ere ez bizi izatera pasa zen herria. Horren ondorioz, baserriko lana gehitu egin zen, etxe ugari bitan edota hirutan zatitu ziren. Ugazabek, diru apurren bat eginda zuten, bertatik alde egin zuten eta baserria eta lurra maizter bakarrari eman beharrean, zatitu egin zituzten.

Baserriko lanari uztean suertatu da azken aldaketa. Gaur egun baseritik ia inor ez da bizi, errepideak hobetu



Ederki pasatzen dute aurrek Iturripen

Pilotaren etorkizuna

103 haur asteazken eta ostegunetan Iturripen

Euskal kirolik bada, hori pilota dugu; eta aintzinako ohitura zaharrrak galtzen ari diren garaian benetan txalagarriak dira pilota bultzatzeko hartzen diren ekimen eta neurri guztiak.

Deba Garaiko eta Elgetako pilota taldeek, haurrak frontoietara hurbiltzeko ideia jarri dute martxan. Arrasaten ere, noski. Asteazken eta ostegunero 103 haur elkartzen dira Iturripen, Arrasate Pilota Taldeko arduradun eta guraso batzuen ardurapean.

Aipatu behar 103 horietatik 24 neskak direla. Hor ibiltzen dira denak pilotan 6,30etatik 7,30etara; hori bai, guztiak 8 urtetik gorakoak. Oraindik ere nahi duenak joateko aukera dauka, bertan Pilota Taldeak

eskainiko dizkion materialak gozatzera.

Proiektu honen helburua (neska-mutikoei pilotaren zirrara sortzeaz aparte), kalitate oneko norbait aurkituz gero, aurrera segitzeko behar duen laguntza eskaintzea litzateke.

Lanean, lanean dihardu Arrasateko pilotaren harrobiak Zurdo, Arriaran eta Urraren ondorengoak sortzeko. Eta harrobi horrek badu ametsik: Ferialeko pilotalekua.

Jakin ere badakigu guztiok ze garrantzitsua den kirolarientzat instalazio egoki batzuk aurkitzea, eta alde horretatik Iturripek hutsune asko ditu. Galdetu bestela haurrei neguko arratsalde hotz eta euritsuetan.

Jon Igoa

Jonek 23 urte ditu, eta dagoeneko bospasei denboraldi daramatza Donostialdean. Bere bizitza, futbola. Batek baino gehiagok gogoratuko du oraindik ere nola eman zituen lehen ostikoak ALMEN taldean.

Urteak pasatu dira Erreala bere bila etorri zenetik. Gizondu egin da, eta azkenaldi honetan aurrelari finaren itxura osoa hartu du.

Denboraldi honen hasieran arrasatearrok itxaropentsu geunden, Jonek lehen mailarako azken jauzia egingo zuelakoan. Atzerritarrrak gora eta atzerriatarrrak behera, kasua da Liverpool aldetik etorritako irlandarrak momentuz bidea itxi diola.

Jon Igoa Sansera itzuli beharrean aurkitu da. Pasa den astean albiste bihurtu zen, ordea, Eibar taldeak bere zerbitzuak eskatu zituenean. Boronatek ezetz, Igoak han gelditu behar zuela Errealarekin. Noski, Boronatek ere badakielako etorkizuneko 9 txuri-urdina Jon izango dela.



ENARA
OSAGARRIAK

Maalako Errabala 21,
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32



ARDILLA
artileak

Puntozko jantziak eskuz eta makinaz
egiten dira

Kalealdea 13, B. Tfnoa: 79 65 93

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A. ZANGITU

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA

podiuma

Ramon Azkarate, makinatxo bat urte eskubaloian


Ramonek 29 urte ditu, eta honez gero 14 bat daramatza eskubaloian munduan. Eskolarteko txapelketan hasi zenetik gaur arte, UDAn, Eibarreko Arraten eta Arrasate Kirolak-en aritu izan da.

Ondo ezagutzen du mundu hau, eta atsegin zaio. *"Batez ere talde barruan dagoen giroa, izugarria da. Hasi ere horrela hasi zen eskubaloia Arrasaten, lagun kuadrila batek bultzatu nahi izan zuelako. Gaur ere hori gara, lagun kuadrila"*.

Atzean gelditu da ekipoa hirugarren maila probintzian hasi zeneko garaia. Gaur bigarren maila nazionalan daude, eta orain bi aste Federazio kopako txapeldun atera ziren. *"Oso garrantzitsua izan da guretzat, batez ere taldean sartu berri diren gazteentzat. Orain badakigu sasoi onean gaudela aurtengo denboraldian gauza politik egiteko"*.

Atzetik datozen gazteak, eurak dira etorkizuna. *"Jokalari onak dira; fundamentuak ederto lantzen dituzte, eta alde horretatik gauzak garrantzitsuak egiten ari direla uste dut"*.

Dena den, zaila da eskubaloian hariak ondo lotzea, jokalaria guztiak amateurrak bait dira. *"Atsegin dugu lako etortzen gara hona. Baina ez da erraza taldea borobiltzea, elkarrekin entrenatzeko ere arazo asko izaten ditugu eta. Ikasleek azterketak prestatu behar dituzte, langile batzuk errelebotan ibiltzen gare lantegian... Gauza da inoiz ez gerala talde osoa elkartzen parti-*



Ramon Azkarate

duetan ez ezik".

Orain urte batzuk zaletu gehiago hurbiltzen omen ziren eskubaloia partiduak ikustera. *"Ez dakit, beharbada saskibaloia gora dakat, baina kontuak kontu, gaur egun ez dira gehiegi hurbiltzen: Lagunak, jokalaria ohiak... Pena ematen du gero Usurbil edo antzeko herrietan kiroldegia jendez gainezka aurkitzea"*.

Aipagarria da Gipuzkoako eskubaloia gaur egun bizi duen egoera bikaina, ohorezko mailan Arrate eta Bidasoak daramaten martxa politarekin. *"Eibar eta Irunen beti bizi izan dute eskubaloia eta noski, laguntza asko egon dira talde horientzat. Arrasaten ez da hori gertatzen, hemen lau zuzendarik atera dute dena aurrera Arrasate Kirolak-ek emandako laguntzarekin. Eskerrak eurei, bestela..."*.

Asteburuan ere neurketa izango dute, bai Ramonek eta bai bere taldeko lagunek. Beraien zain, mailaz igotzeko promozioaren ametsa.

■ **Eskubaloian ondo**

Federazio kopan txapeldun izan ondoren, ligako lehen ihardunaldian ere 14-12ko emaitzaz nagusitu ziren Arrasate Kirolak-eko jokalaria, Zumaiko Pulpo Taldearen aurkako neurketan, Musakolan. Ondo.

■ **Mondrak enpate**

Abetxukon jokatu zuen Mondrak igandean. Markagailuan arabarrak aurreratu ziren penaltz, eta Aranburuzabalak lortu zuen gola 63. minutuan. Asteburu honetan, Zumaiko Taldea Atxabalpen.

■ **Saskian ezin**

Zazpi partidu jokatu eta bakarria irabazi dute gure jokalariek. Larunbatean, Cantabriaren aurka aritu eta orduan ere lau puntuz galdu zuten, Logroñon.

■ **Rugbyan porrot**

Gernikako Taldea izan genuen asteburuan Iturripen. Partidu amaieran Arrasate Kirolak-ek 6-Gernikak 29, eta gure taldea dagoeneko sailkapeneko azken postuetan.


■ **Zorionak Gazteei**

Futboleko, ohorezko mailako taldea lider aurkitzen dugu, 17 puntu eta bost positiboz. Gazteak, behintzat, ederto jokatzen ari dira.

Denborapasen soluzioak

Nahaste-borraste

- 10 Herema, 20 Atxurra, 3) Eftzia
- 4) Adarra, 5) Eedibiru
- Etxaide



OKENDO
KIROLAK

Iritsi da OKENDO KIROLAKera udazken-neguko moda!

Maalako errabala 13, Tfnoa: 79 92 76 ARRASATE

Finalerdiak

Lazkano, Euskitze, Mendizabal, Telleria, Sorozabal, Areitio, Mañu-korta, Otamendi, Zendoia, Loidisaletxe eta Larrañaga, horra hamaika bertsolari txapelketaren lehenengo galbahetik pasa direnak. Lesakako saioak inoiz baino jende gehiago bildu zuen, harrizkoa ere ez, klasi-fikazioa jakiteko morboak mugitu egiten bait du bertsozalea. Aurreko txapelketan finalista izan zirenekin arituko da hamaikako hori, aste honetan eta hurrengoan. Finalistetan ez dira, ordea, guztiak izango, Lizaso eta Lopategi zuzenean azken saioan sartuko direlako, eta Amuriza eztarriko gaitz batek jota erretiraturik dagoelako. Astean jakin dugu Peñagarikano uztera doala ere, ul-terak eta nerbioek eraginda oso gaizki bait zebilen aspaldian. Norbere buruari tratu hori ematea bai-



no... Lastima da! Peñaren partez Lertxundi sartuko da.

Ikusi dugu azken laurdenetan aritu direnen maila, saio batetik besterako aldaketak eta urduritasuna gorabehera. Zenbait erregular, beste zenbait motel hasi eta bigarrean hobetu, eta izan da alderantzizkoa gertatu zaionik ere. Baina ez dakigu orain hastera doazenen indarren

berri, entrenamentua, doinu berriak eta ganbara bete ideia aldean ekarri-ko dutela jakin arren. Entzutera joateko gonbidapena egitea besterik ez da geratzen. A! eta gogoratu atxalbatarra ere Azpeitian eta Gernikan izango dela, Donostiarako txartelaren bila.

Arantzazu Loidi

Mondragonesa Grafitagintza

Paperdenda. Mahaigaineko tresnak

Olarte 10, Tfnoa: 79 12 63

Trapo's

Uribe auzoa 2, Tfnoa: 79 83 38 ARRASATE

Obea

**SEGURITATEA
ZURE
ZERBITZURA**

Mantenimendua
Berriztapena
Izogailu eta jasogailuen
muntala

**ESKA EZAZU
AURREKONTUA**

Bulego zentrala: Jose Luis Iñarra
P., 22 Tfnoa: 79 12 08
ARRASATE

**ARRASATE
PRESS**

79 71 64

Arrasateko trafikoak bi puntu beltz gehiago

Dabilenak badaki Arrasaten autotz ibiltzea lan txarra dela. Ordu jakin batzuetan—lantegietako sarre-
ra eta irteera orduetan— ia ezinez-
koa da, eta gainontzekoetan ere
gero eta nekezagoa. Autoen kopu-
rue ten gabe gehituz doa eta ibil-
tzeko nahiz aparkatzeko lekua gero
eta urriagoa da.

Baikorrek uste du saihezbidea
amaitzen denean—ikusiko ote duten
gure begiek horrelakorik!— eta lur-
peko aparkalekuekin konponduko
dela arazoa. Ez nuke nik aposturik
egingo. Goialdeko auzoak —Alta-
mira, Makatzena, Kristobrero...—
adibidez, lehengo moduan gelditu-
ko dira. Eta aparkalekuak egiten
diren bitartean, bertan kabituko
direnak baino auto berri gehiago
izango da Arrasaten. Hori bai, mi-
lioio mordoska poltsikuz aldatuko da

aparkalekuekin.

Gerokoak gero, oraingo egoera
txarrari beste bi puntu beltz gehitu
behar zaizkio, Maxi-Eroski eta
Roneo berriko sarrerak, hain zuzen.
Adornurik gabe esateko, Maxi-
Eroskin gertatu dena lotsagarria izan
da. Lehen egunetako kaos hura edo-
nor sublebatzeko modukoa izan zen.
Eta egun gutxi batzuk izan zireneko
aitzakiak ez du batere balio: han
gertatu zena aurrikusi zitekeen eta
erremedioa bilatu.

Dena den, arazoak hor dirau.
Maxira sartzeak edo bertatik irteetak
trafikoa guztiz oztopatzen du.
Bestalde, alboan dauden auzokoent-
zat ez da oinezko biderik prestatu.
Dakienak agian esango du saihebsi-
dearen Musakolako muturra osatzen
denean sarbide hori hobetuko dela,
baita oinezkoentzat espaloi moduko

zerbait martxan dagoela ere. Baina
niretzat, berriro ere, aitzakia horrek
ez du balio. Horrenbesteko mugimendua
sortuko duen zentru bat ezin
da martxan jarri bertarako sarbideak
prest ez dauden bitartean. Eta kitto!

Beste horrenbeste dator Kataide-
ko industrialde berriarekin, bertako
ehundaka langileak lanean hasten
direnean. Hemen ere ez bait da behar
den moduko sarbiderik prestatu. Ba-
dakigu, noski, lurpeko pasabideak
diru asko kostatzen direla. Eta ho-
riek egiten ez direlako galtzen diren
orduak? Eta sortzen den amorrua?

Egoera ez dago harrokerietarako,
baina garaia iritsi da geure bizitza
kolektiboaren kalitate-mailaz ardu-
ratzen hasteko. Zergatik ez denon
arteko ahalegin handia egin Arrasa-
ten bizitzea gustagarriago izan
dadin?

Mikel Intxausti

AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- Gogorak
- Porodunak
- Bigunak
- Kosmetikoak
- Erabilipen traunkorrekoak

Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa!

**Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO
DIZUGU**

Zure betaurreko eta lentilan aseguruia dohainik


Kontzeziño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate

Infografikoak

Garai berrietara moldatzeko egi- ten ari den ahaleginei esker, hitz eta kontzeptu berriak azaltzen ari zaiz- kigu kazetaritzan. Zinema eta batez ere telebista agertu zirenetik, albis- teak ikusten ohitu gara, ia-ia kontu- ratu barik. Gu baino zaharragoek ez zuten eragozpenik argazki eta grafi- korik gabeko egunkaririk irakurtze- ko. Gazteagook, oster, begira atse- ginak diren elementuak eskatzen dizkiegu egunkari eta aldizkarietara.

Horretarako *infografikoak* sortu dira, hau da, *albisteak edo estatisti- kak bisualizatuz, hobeto ulertzeko ordenadorez marraztutako grafi- koak.*

Joera Estatu Batuetatik datorki- gu. Egunkari gehienek erabiltzen dituzte, nazioarte mailan satzen di- tuzten agentziak ere sortu dituztelarik. Guzti horretaz hitz egi- teko George Rorick, *USA Today*



egunkariaren eguraldi maparen egi- lea izan genuen Nafarroako Uniber- tsitatean. *Arrasate Press* ere han egon zen, zeren infografikoak guk darabiltzagun Apple MacIntosh or-

denadoreekin egiten bait dira.

Horretarako programa egokiak *FreeHand*, *Illustrator* eta *MacDraw* dituzue. Ea noiz hasten garen gu ere lehen saioak egiten.

PROMOCIONES MARKULETE, S. A.

NABE INDUSTRIALEN SALMENTA


Mendi-Etxebarrin

445 m² tik aurrera sarbide zabalarekin

- *Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.
- *Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia
- *Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60
27 79 60

Arrasate 79 97 95



ETXEBIZITZA-MULTZOAK COSTA DORADAN (SALOU, CAMBRILS, MIAMI)

- Itsasotik ondo-ondoan
- Antena parabolikoa
- 1 eta 2 logelako apartamentuak
- Pizkina eta kanpoko aparkalekua

Les Gavines

**HIPOTEKAZKO
MAILEGUA**
10 URTEARA %13'75 ean



INFORMAZIOA



Anboto


INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK / INVERSIONES Y SERVICIOS
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK / ASESORES INMOBILIARIOS


Manuel Niñerola
Grup immobiliar, s.a.

Passeig de La Salle 9
C. Sant Jordi 17
E-43850 CAMBRILS
Tel. 34(9)77 361567
Fax. 34(9)77 360754

C/ Iturriotz, nº 11 - Tfno. (943) 7920 48 - ARRASATE-MONDRAGON

Onduline



HERIZ


eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta 1 Tfnoa: 79 23 18ARRASATE

ZABALA

Taberna
Jatetxe
Ostatua

Labegaraia BERGARA
Tfnoa: 76 20 07 eta 76 42 57



Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdia
Erremintak gordetzeko armairuak
Lan egiteko aukiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

- * Diagnostikoa - Orientazioa
- * Estimulazio goiztiarra
- * Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkuntza berrezleria)
- * Logopedia
- * Laguntza terapia
- * Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea 10
ARRASATE TFNOA: 79 48 77



ARAMBURU COTEMAR

garraio agentzia

Zaldizpe 3, Tfnoak: 79 52 34 / 79 53 99 ARRASATE

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

I
R
A
T
I

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80



URONDO elektrizitatea.

- * Elektroiak
- * Instalazioak
- * Automatismoa
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

ARRASATE PRESS

79 71 64

Osasun publikoa


Gaixotasunak eragotzi, bizia luzatu eta osasuna sendotzea dira Osasun Publikoaren helburuak.

Printzipio hauek kontutan izanik, gure Herriko egungo eta geroko transferentzia sanitarioen errealitatea onartuz, esan genezake toki guztietan ez dagoela osasun-maila berdina.

Epe labur eta luzerako planifikazio egokia, helburuak argi diseinatu, eta lehen tasun batzuk finkatzea derrigorrezkoa izango da datozen urteotarako.

Guri gai batzuk bururatzen zaizkigu, lehen tasun horien barruan preferentzia izango luketenak:

- Ingurugiroa aztertu eta babestea: arrisku fisikoen gaurkotasuna (zarata, erradiazioak, bibrazioak...); gas kutsagarri eta beste zabor batzuek -solido nahiz liki-



doek-dakartzaten arrisku kimikoak; eraso biologikoak: hepatitis, HIES/SIDA eta gure komunitatean gero eta gehiago agertzen den stressa.

- Tabakoa, alkohola eta beste droga batzuk, eta gazteriaren egoera problematika honen aurrean.

- Txertaketa-kanpainak edo prebentzio-lanak programa kardiobaskularretan, baita buru-osasun, minbizi edo hortzen zainketarako programetan ere.

- Errealitatea eta demografiaren eboluzioa pertsona jaio aurretiko, haurtzaroko eta zahartzaroko problematika osoarekin.

- Edozein industrian, beharrezkoa den lan-arloaren zainketa. Egia da edozein industriak aberastasuna sortzen duela baina ez dugu ahaztu behar osasun-arazoak ere askotan sortzen dituela, arazo hauek enpresaren mugak gainditu egiten dituztelarik sarritan.

Eukeni eta Arantza

sonora **KEF** **Harman/Kardon** **PANASONIK** **CEC** **MUSIMA**
QUAD **ONKYO** **Vegas**

baile **Clener** **CASIO** **EGI**
Mission **Goodmans** **BASF** **NAKAMICHI**
HONNER **Televes** **Ortela**

Zimmerman **Polytone** **Rotel**
Fujitsu **LARK**
Cyrus **Fox**

TEAC **JBL** **MORESCHI**
TORQUE **PIONEER** **PHILIPS**

Hantarex **Alpine** **KELLER** **Ortofon** **JUGGS**
Admira

Tensai **MELOS** **Estrella** **KONIKA** **UHER**
Fonestar **SHINTON**

ERESI

Otalora kalea Tfnoa 79 29 09 ARRASATE

LILURÀ -ek
zeure moda
diseinatu
eta sortzen laguntzen
dizu

Zerkaosteta 5, behea.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



EDERRA

Iturriotz kalea 12, Tfnoa: 79 96 25

ARRASATE
PRESS

79 71 64

Bizikletan Gantzagara

Azaroaren 12an, igandean, Aramaioko Gantzaga Auzoan izan zuten zita inguruko zikloturista guztiek. "IX. Gantzagako Igoera". Dagoeneko 9 urte eta 10.a egiteko prest.

Sasoi honetan normalean eguraldi txarra egiten badu ere, aurten egundoko eguraldia egin zuen. Zita eguerdiko 12etan bertan, Gantzaga auzoan. Neskarik ez baina 6 edo 7 mutiko bai. Gero helduak edo hain gazte ez daudenak. Beraz, denetik zegoen.

Auzotik Etxaguen aldera, bideitik, Arriola eta Aixola auzoetaraino. Aldatsa galantak baina beherantz. Aixolatik Urribarrira eta hemendik Aramaio herrira (bertan esaten duten legez, kalea). Aramaion, Etxaguen, Gantzaga eta Arragara joateko bidean, lerroak egin eta hasiera eman zitzaion proba txiki baina bikain honi.

Guztira 4 km. inguru, dena go-

rantz Sakue deritzan tokiraino, gero beherantz-gorantz auzora heldu arte.

Parte hartzaileen artean denontzat ezaguna den Ismael Lejarreta, Marinoren anaia. Honekin Berriz, Durango inguruko beste hainbat lagun. Gainera urtero Zaldibar herri-tik "peña" bat etorri ohi da. Eta azkenik, Arrasate eta bailarako zenbait zale eta auzoko benetako protagonistak; zein baino zein, "burruka" polita.

Hasieratik apurto zen tropela; baten batek aurrera jo eta taldetxo bat egin zen aurrean, erdian beste bat eta atzean zetozenak bestea. Hasierako erripetan gogorrenak eta eginda daudenak gora egin zuten eta bestean, lehia polita burutuz, gorantz amas-estuan gora, zeinek irabazi.

Gero auzotik Urdungixora doan bidean gorako proba antolatu zuten. sei partaide bakarrik. Bi atzean gera-

tu ziren, beste bi bideerdian gertu eta bik bakarrik lortu zuten heltzea. Horrelako aldaparik, horregatio!

Irabazlea berriro, "Currin" eta bigarren, sasoiaren dagoela erakutsi zuten Julian Gallo arrasatearra.

Azkenean, auzokoetan irabazle Unai Larrañaga gaztea, iazko irabazlea. Helduetan, "kurrin" ezizena-rekin etorritako bizkaitarra. Mutikoetan, zaldibarko mutiko koxkor bat.

Ikus daitekeenez, sari piloa irabazleentzat.

Bukaera denei poltsa-opari bat banatu zitzaion, jaboia. Eta ondoren unerik politena, auzoko jaietan inoiz falta ez dena, buzkantza, salda, ardoa.

Parada polita Gantzaga auzoa ezauketako. Datorren urtean inguruko zikloturistak, San Millan egunean, Gantzagara.

K. U.

AUSTIN ROVER



AUTO SAN ANDRES

IBILGAILU-MOTA GUZTIETAKO KONPONKETA ELEKTRIKOA

Araba Etorbidea 5, Tfnoa: 79 95 22 ARRASATE

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,
Erakusketa: Sancho Abarca, 6

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



ARTE LENIZ

koadro eta
moldurak

Leintzibar kalea 4, 79 37 64 ARRASATE




Zurgin Kantoi, 2

Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE

ALTUNA
FRUITATEGIA
Kalealdea 11n
eta Merkatuan

Tfnoa: 79 90 75 ARRASATE



Gas, gasolio eta
elektrizitatezko berogailu
eta aire girotuko instalazio
elektrikoen diseñua,
muntaiak eta mantenua

Industrialdea, B-5, ARETXABAETA Tfnoa: 79 03 03 ARRASATE Tfnoa: 79 05 18

TABIRA
DIETETIKA

Kosmetika eta produktu
naturalak
Estetisiena

Munar 8, ARRASATE

Kabia

Altzariak


Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

ARRASATE
PRESS

79 71 64



Kalitate-garantia




YOSU C.B.

Aluminio eta P. V. C. ko arrotzeria

**Abantailaz beteriko
gure leihoek**

- * Hotz, zarata, euri eta haizearen kontra babesten dute
- * Europako teknologia aurreratuenak P.V.C. leihoetan.
- * Edil-Plastik sistemaz YOSU c.b. arrotzeiak eginak.
- * Kalitate prezio erlaziorik onena

Lantegi eta erakustokia: Labe Garaiak. z/g Tfnoa: 76 53 69 BERGARA
Erakusketa Berria: Kanpantorpea, 2 (Parrokiaren aurrean) ARRASATE



HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- * *Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- * *Fresatzeko makinak*
- * *Zenbakizko kontrola*
- * *Mekanizazio-zentroak*
- * *Tornuak*
- * *Artezko makinak, etab.*

Zaldispe kalea 10, ARRASATE
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61 Posta kutxa 95. Telefax: 798097



Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura daukazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58



KÖMMERLING

P. C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE

ETXEBIZITZAK

- Umerik gabeko senar-emazteak, irakasle gazteak, etxebizitza behar du lehenbailehen Bergarako hirigunean. Dei egin 62 02 28 Tfnoa.
- Etxebizitza salgai Zabalotegi dorrean, Bergaran. Informazio gehiagorako deitu 76 17 37 edo 76 25 89 Tfnoa.
- Arrasateko erdialdean alokairuan behar dut lehenengo pisu bat edo beste bat igogailuaz. Tfnoa: 78 07 46.
- Haurrik gabeko bikote gazteak Arrasaten pisu alokatua behar du. Tfnoa: 79 30 20.
- Uribe auzoan pisua salgai ganbara eta garajeaz. Tfnoa: 79 49 66
- Muntatuta dagoen pixu batean gela hartuko nuke. Jose Manuel Tfnoa: 49 14 53 . Dei egin 8etatik 10etara.
- Errentan hartzeko etxabehea edo merkatalokala bila gauzak sartzeko. Tfnoa: 79 94 00
- Jantzitako pisuan logela bila. Tfnoa: 49.14.53 (Jose Manuel), gaueko 8etatik 10etara.
- Apartamentua salgai. 2 logela, bainugela, ganbara, sukalde-jangela. Tfnoa: 79 26 95 (6etatik 8etara)
- Pisua salgai Urriburu kalean. Tfnoa: 79 81 79
- Pisua salgai Udalpe kalean. Tfnoa: 983-39 41 90
- Pisua salgai J.L. Iñarra kalean. Tfnoa: 79 20 03
- Pisu berri-berria Erguin kalean salgai. Gas naturala eta ur beroa, egongela, bi bainugela, sukalde ekipatua. Tfnoa: 79 19 96
- Neska behar da Donostian pisua konpartitzeko. Tfnoa: 76 43 74 (arratsaldeko ordubietan)

- Pisua osatzeko pertsona bila nabil. Interesatuak helbide honetara etorri behar dira: Araba etorbidea 20, 5. esk. 5etatik 6etara (larunbatean ezik)
- Ikasleak Donostian pisua konpartitu nahiko luke. Tfnoa: 27 86 84. Astegunetan arratsaldez.

LANA

- Neska arduratsua etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 45 92. Arratsaldeko 3etatik 4'30ak bitartean edo 8etatik aurrera deitu.
- Inglesezko klaseak emateko pertsona behar da, astean 3 edo 4 ordu, goizetan (goizean goiz hobeto) interesatuak deitu 78 07 85 10etatik ordu letara, astegunetan.
- Neska haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Deitu azkar 79 42 69 Tfnoa.
- Ingeleseko irakaslea behar da "Bilboko 3." kurtsoa neska bati emateko. Tfnoa: 79 57 53 (21etatik aurrera)
- Bi haur zaintzeko eta etxeko lanak egiteko pertsona behar da. Lan orduak:8-18. Tfnoa: 79 79 69 (8etatik aurrera)
- Haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume edo neska behar da. Tfnoa: 79 35 44 (7etatik aurrera)

SALEROSKETAK

- Salgai dituzun ploletak eta granpolak erosiko nizkizuke. Jabier 79 50 53

- Fagor markako ikuztailua salgai. Ondo dago eta merke salduko nuke. Deitu 7,30etatik aurrera 79 82 47 tfnoa.
- R-11 GTL berde metallizatua, SS-T salgai. Tfnoa: 79 94 86
- Solnua -96 baxua. Moreschi markakoa. Tfnoa: 79 52 40
- Prenler bateria salgai, plater eta guzti. Tfnoa: 79 46 86
- Venguri kitarra elektronikoa salgai, 3 Fender pastilaz, Strato Caster eta dagozkion kableak, Anplifikadore bi Doobie sarrerez, Pedal distortsioa MxR, egoera onean dagoen maleta, Jibson korda-jokubat.
- Umeentzako kotxe itsasurdina, Arrue markakoa, prezioa: 15.000 pta. Tfnoa: 79 7742 (10etatik 12etara)
- "Amstrad" jokuak salgai. Denak erdi prezioan eta egoera onean (disketetan eta kasetetan). Deitu 7etatik aurrera 79 49 03 tfnoa. Gorka.
- Zure argazki-makinarentzako Panagor markako 200 mm-ko telea salgai. Diametroa 62. Oso merkea. Tfnoa: 79 71 64

DENETARIK

- Etxeko gauzak (altzariak, telebistak,...) bota behar badituzu, mesedez, bota aurretik deitu guri, tfno honetara 79 84 76 9etatik aurrera.
- Neskak erloju bat aurkitu du urriaren 13an Portaloian. Jabeak deitu. Tfnoa: 79 23 50
- Larunbatero, Oñatiko Udal Euskaltegian EGA ikastaro trinkoa, 4 ordu.

†
ARRASATEN HILDAKOAK

Moises Arrieta Eguren
45 urte. Azaroaren 15ean

Encarnacion Barquero Davila
79 urte. Azaroaren 21an.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DIAN. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:.....
.....
.....
.....
.....
.....

Arrasate Pasealekua 3 bis, etxeban.
20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

Famauen ahotik



Tomas Zubillaga, pelotari eta... ekilibrista

Tomas Zubillaga: "Maximoaz eitten naixuan pelotan gustora"

NEUK IKUSITTE

Maximo Letona Billerlen finala jokaketan jabillan Aspiazun kontra. Partidue 18re eta 17 eta 12 irebazten joian.

Aspiazuk pelotie jo eta arraittik kanpora zuzen-zuzen, baiñe Maximok sano-sano, partidue irebazi auelakuen, pelotiek lurre jo baiño lehenau hartu eñ juan. Azkenien, Aspiazuk irebazi 18 eta 17.

1.go txapelketie 15 urtekin

Hamabi urtekin Gatzatik, Mondrauera etorri bizitten eta egunero Iturripera jueten gitzuan Mauri aurrengo zala. Gero 15ekin, Luis Mari beste anaiaz Eskoitzako kampeonatu lokalien jokatu naixuan eta samur irebazi be. Haxe izen zuan zuri jantzitte urten gauen 1.go txapelketie. Ha zuan poza, ha!

Afizionauetako 1.go finala

Maximo Letona eta bixok Bergarako interdistritos txapelketan finalera allegau gitzuan, Tolosa eta Juaristiri irebazitte. Maximo jauan orduen oso forma onien. Pelotan gustora haretzekin eitten naixuan, asko animetan nindduan, gairera.

Eskuz, palaz, eskuaxien...

Hogeitaberatzi urte arte ein juat eskuz, azkenengo finala oifi dala 3 urte ero, Sto Tomas txapelketie 4,30xen barruen. Halako mutil txaxar batek irebazi jutzan, bai, eta palara pasetie pentsau naixuan. Palan eskuz baino 20 aldiz gehixau nitzuan.

Oifi urtebete ero, eskuaxien hasi

nitzuan. Palan letxe esku bixekin, halan eitten dauen bakarra nok. Entrenau Lasagabaster argentinuaz eitten nok, ha dok hemengo mai-xue. Bixok antzera samar gabitzek. Txapelketa danetan izen nok eta Durangon bigarren atara naixuan.

Tomas ekilibrista

Txikitten amak ogitten bielketan nindduenien, surrien asentaute ekarten ibiltten nitzuan. Eskobiaz, akuluaz, eta eskueriaz be ibiltten nitzuan. Gero gauza astunaekin hasi nitzuan baiñe okotzien asentaute. Soldautzan txatarrerako auen motobizikleta bat, minutu bat pasauen euki naixuan eta 4 lagunendako bokailluek eta zerbezak irebazi nittuan. Hurrengue, Azatlan izen zuan karretilla batekin, ezetz, baietz hasi... jaso eta luzeruen euki naixuan. Txorixo bokaillue irebazi han be. Banku, mahai, bailla... harrapetan nauen dana jaso biher, baiñe apostue eifde, eh!

Burdi batekin be gure naixuan eittie baiñe txirringa bakoik topau ezin.

Estepan Plazaola eta J. M. Garai

Zelebrekerixak

Lagun bi zien. Bata arte-zalia, batez be pintura kontuan, eta bestia, ez bakarrik halako gauzetan kezkaik bakua, baita kuadro bati gizonak hainbeste afan zela emon leixon konprenditzen etzebana.

Behin hau joan zan bere lagunagana eta eta esan zotsan:

— Nahi bok sinistu atzo pinturako kuadro batek negarrez ipini ninduan...

— Eztok izango... Van Gogh, Matisse, Utrillo, Cezanne, ero holakon batena izango zuan.

— Nik etxakixat norena zan baiña kuadro galanta zuan eta nahikua negar eragin jostan...

— Nola eta nahi be hire sentimentuei holako ikaria eraitteko oso ona izan bihar.

— Ikaria difok, ikaria?... Azelakotxe zaxtadia emon jostan...

— Hik zer pentsatze heban ba? Kuadro onak holakotxiak izateittuk. Ordua zuan hiri be zarraria eraitteko.

— Zarraria difok, zarraria?...

Artezaliak ointxe bere zaletasuna lagunak entendidu ebalakuan pozik, preguntau zotsan:

— Ia ba, kontaidak zela izan zan.

— Ba kuadruea zintzilik zeguan lekutik sokia etenda jausi zuan eta buruan jo nindduan. Emon zotan zartariakin zela enajuan ba negar egingo?

Juan Martin Elexpuru

BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

FELIPE
MADINA
ZURAK



Gerraostea gogorra izan zen Mondragoen, non ez, baina urterik txarrenetan ere kantatzeko grinak egin zuen bidea gure artean. Hain lirain eta dotore ikusten duzuen bosteko hau *Jai* ahots eta musika taldea duzue. Zutik ezkerretik eskuinera Felix *Ugalde* baritonoa, gaur Donostian bizi den soinu-jole ohia eta *Jesus*

Palacios tenorea, Arrasaten jubilatuta bizi dena. Jarrita, ezkerretik eskuinera *Jose de Azpiazu* ofatiarra; espetxean zegoela *Los Bocheros* taldekoen gitarra irakasle izana; hogeitamar urte direla Ginebrara joan zen bizitzera, non bertako Musika Kontserbategiko katedraduna izatera ailegatu bait zen. Erdiko soinu-jolea *Julio Markaide* zen, zuzendaria, apaizgaia garai hartan;

geroago Mondragoeko eta Parrokiako Abesbatzen zuzendaria. Askoz ere beranduago Hego Ameriketara abadetu zen eta bertan hil. *Ramon Eriz* gitarrajolea gaur egun Venezuelan bizi da. Taldea Markaide eta Azpiazuren ekimenez sortu zen, 1943an gutxi gorabehera eta hamar urtez iraun zuen. Urte horietan Hego Euskal Herria eta Errioxa alderik alde zeharkatu zuten zinema, irrati eta kafetegietan kantatuz.

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

BAZAR
TOKI ON

J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64


Eslu
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
Arrasate

**A
N
T
Z
E
R
K
I
A**

Hixka Antzerki Taldea

Tfn: 4 6-9 8-27



Hixka Taldea. Armerias, 2, E.D. 1º C Hondrosia

Tokia: Amaia antzokia **Eguna:** Azaroak 25, larunbata
Ordua: Arratsaldeko 6etan. **Sarrera:** 150 pta.
Antolatzaile: Arrasateko Udala

Sport
SASIAIN



Zaraia 4, Tfnoa: 79 77 63 ARETXABALETA

**E D E L
TAPIZTEGIA**

Gortina
Alfonbra
Koltza

Bidakruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA

ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa
Arrasate. 79 98 94

TOYOTA *Galarza
Automobilak*

Ibargarai 37, Tfnoa: 76 50 99 BERGARA

Aste honetako kolaborazioarekin testu mota berri bati ematen diogu sarrera: beste hizkuntzetatik euskaratutako testuei, hain zuzen. Eta -ustez, behintzat- era lehun eta atseginean hasteko Joaquin Sabina kantautore famatuaren hiru testu-txorekin hasiko gara.

G. M.

I

Ez dezala gure besarkadak
mundua bermarazi,
berau suntsitzen lagundu baino.

II

Terrorismoaren apologia

Atsotitzari kasu egiok
eta etsaia igaro dadin
itxoin ezak.
Hire parera heldutakoan
parabellumari eragin
eta su-giltzari emaiok
(ez duk hain poetikoa izanen,
baina eraginkorragoa bai, ziur)

III

Eta gero putetxez putetxe bukatu
mozkor eta zoriontsu
txangoan doazenek
eta amerikar marine batzuk soilik
duten
kide-tasun ergel eta zalapartatsu horrek berotuak.

Joaquin Sabina, *De lo cantado y sus márgenes*
Granada, 1989

BATZOKIA
jatetxea

Eguneroko menua
eta karta

Iturriotz 41, 79 70 41
Arrasate



EGIDO

Ordezko Piezak

Automobilerako ordezk piezak

Legarre Pabilola. Tfnoa: 79 62 11

■ **Karmen Odriozolaren igande goizak:** Euskadi Irratiko igande eta jaiegun goizak ia bere osoan ordiziar atsegin honen eskuetan daude. Goizeko zortzietan *Agurrarekin* hasi, eta meza ostean *Arkaren leihatila* irekitzen digu, eguneko prentsa errepide eta eguraldiaren berri emateko. —entzutekoak izaten dira Pello Zabalarekin izaten dituen elkarrizketak— beti ere musika eta beste hainbat berri tartekatuz. Hamaiketan “kriskitin-kraskitin soinu txikiak goxatuz”, *Auspo zahar-soinu berri* emanaldia eskaintzen digu astero estudioan trikitalari bikote gazte batek zuzenean jotzen dituelarik entzuleek telefonoz eskatutako piezak (deialdi gehienak Donostialde, Goierri eta Beterrikoak izaten dira). Ordubatean, azkenik, *Kale kantoian* ekartzen digu, albiste, elkarrizketa, konexio eta musika ugari tartekatuz.

Lan itzela pertsona bakarrarentzat, baina nire gustorako M. Karmen Odriozolaren sinpatia, berba samurra, arintasuna eta ongi egiteak beste ezeren gainetik nagusitzen dira. Domeka goiz nagi horiek ez dira benetako igande, M. Karmenen ahotsa eta barre erraza entzun eta inguruan katu lotirik esnatu beharrik ez dagoela konturatzen naizen arte.

Magisteritza eginda sartu zen irratian, baina Mari Karmenek ederto frogatu digu bere sinpatia eta ongi egitea medio, irratia gustoko egiten badakiela. Hari entzuteak igandetako paga ekartzen dit gogora.

■ **Abyss: Alien eta Alien, itzulera** ikaragarri gustatu zitzaizkidan, bigarrena batipat. Horregatik, ikusmin handiz sartu nintzen Gasteizko Mikeldin, hainbat kritika txar jaso dituen James Cameronen azken filme hau ikustera.

Filmeak dirauen ordubi t´erdiak konturatu barik joan zitzaizkidan, ez nuen astirik izan begiak kliskatzeko ere eta ur azpiko mundu izkutuak liluratuta irten nintzen, hain ziren ederrak, beste planeta batean filmatutako irudiak bait ziruditen. Horrekin batera Cameronek ekintza toki itxietan filmatzeko duen trebetasuna azpimarratuko nuke.

Amaia da filmaren gauzarik ahulena, nolabaiteko urpeko *ET*, fantasiaren azken orduko leherketa, baina tira, ikuslego gaztearen artean askok ez zituzten gauzak horrela ulertu eta behin baino gehiagotan txaloka hasi ziren. Inuxentasuna galdu ez duzuen zinezaleok, adi.

Joxe Aranzabal



gusto baduzu

■ **Super-Match:** Ostiralean, gaueko 23,15etan. Orain dela gutxi jarri du martxan ETBk kirolei eskainitako programa hau. Saio honen barruan ostiralero boxeoa, nazioarteko futbola edo pilota partiduak ikusteko aukera.

■ **Izarrik gabeko gizona:** Larunbatean, 15,15etan, King Vidorrek zuzendutako filmea. Antzesleak Kirk Douglas, Jeanne Crain eta Claire Trevor. Dempsey Rae, andere baten arrantxoan lan egiten duen Cowboy-a arazoetan sartuko da, arrantxoaren nagusi-ordeari eta zuresi bat eraiki nahi duen Bowman anderearen auzokoari aurre egiten saiatuko bait da.

■ **Komikia 9. Artea:** Asteartean, 21,55etan, telesail honen kapitulu berria. Komikiaren historia, arlo honetako marrazkilari onenei egindako elkarrizketak eskeintzen direlarik. Era berean, programa bakoitzak mila marrazki baino gehiago erakusten ditu.

bideoak



Euskadi Hors d'etat

Arthur Mac Caig-ek egindako dokumentala. Euskal arazori hurbiletik jarraitzen saiatzen da, hasi 1939tik eta gure egunerrate.

Lau asteko filmaldia eta hila-betetako dokumentu-bilketa dugu pelikula hau. Orain arte ez da komertzialki estrenatu.

1983an egina. Beta nahiz VHSn. 2.000 pta.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)

4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

Nahaste-borraste

Lehenik definizioei dagozkien hitzak asmatu eta idatzi behar dituzu. Ondoren, laukitxoetan geratu zaizkizun hizkiak behar bezala ordenatuz euskal idazle baten izena agertuko zaizu. Pertsonaia honek batez ere elaberri zein antzerki historikoak landu zituen.

Pista: bere izena Jon da eta hamarkada honen hasieran hil zen.

1)	—	—	—	<input type="text"/>	—	—	}	-----
2)	—	—	<input type="text"/>	—	—	—		
3)	<input type="text"/>	—	—	—	—	—		
4)	—	<input type="text"/>	—	—	—	—		
5)	—	—	—	<input type="text"/>	—	<input type="text"/>		

- 1) Hiru zatitik bat
- 2) Baratzeko tresna. Lurrean zuloak egiteko ere erabiltzen da.
- 3) Erleek egiten duten gozoa.
- 4) "Ilea hartu" = "... jo"
- 5) Bitan zatitu

Soluzioa, 21. or.

Mokordo

Horoskopoa



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Osteguna izango duzu egun onena, aprobe-tza ezazu atzeratuta dituzun asuntuak eguneratze-ko. Asteburuan, berriz, larri samar ibiliko zara.




LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Edozein arlotan arrakasta handiak izan arren, ez duzu zeure burua beteta sentitzen. Nahi duzuna ezin duzulako lortu. Ez larritu horregatik, laster lortuko duzu eta.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Azken orduko eragozpen batek, orain arte konponduta zenezuzkan gai guztiak apurtuko ditu. Ez bota atzera eta hasi berriro, merezi izango du eta.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Lana dela eta nekatuta sentituko zara. Ditu-zun erantzunkizunak ez dira hainbestarako. Ixa-ron dezakete aldaketa bat nahitaezko izango da, bestela gaixotu egingo zara.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Kontu handia jaten eta edaten duzunarekin, gehiegikeria handiak egiten ari zara aspaldi hone-tan, eta dakizunez, zure gorputzak ezin du guzti hori jasan.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Inork ez zaitu hori egiten behartuko, zure gustokoa ez bada ez egin. Inportanteena ez da besteen gustoa egitea, zu pozik eta beteta sentitzea baizik. Ez pentsatu gehiago, badakizu irtenbidea ezta?



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Pertsona horrek behar duen laguntza, zeuk bakarrik eman diezaiokezu. Ez utzi denbora pasa-tzen, berandu egin daiteke eta. Bihotz-bihotzez eskertuko dizu.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Ez zinateke hainbeste fidatu behar lagun horretaz, egunen batean sudurretan emango dizu atarekin. Erne ibili, bat batean harrapatuta ez izateko.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Gauzak besteen eskuetan uzten ohitu zara, bultzatu egin behar zaituzte zerbait lortzeko. Ora-in arte dena ondo atera zaizun arren, hemendik aurrera erabakiak zeuk bakarrik hartuko dituzu.




CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Nahiz eta jokua eta amodioa elkarrekin ez joan, aste honetan zurekin egongo dira. Ez galdu aukera, lotoa eta kiniela egin eta amodio arloan... zuk ikusi. Ez zara kezkatuko!



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Pentsamendu eta ekitzen artean lortu duzun oreka zoragarria da. Horrela baduzu lehen zenituen gaorabeherak desagertu egingo dira. Segi horrela eta iraun dadila.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Gauza berrii ez zenieke uko egin beharko, denetik ikasi beharko duzu. Pixkanaka-pixkanaka ohitu egingo zara egoera berri horretara. Gustatu ez arren, besteen aholkuak hartu beharko dituzu.



Monterroneko parkea

Roberto Mend



FAGOR 

iKER

**SUKALDE
LILURAGARRIAK
ARRASATE**

Bainugela-erakusketa: Zarugalde kalea 52, Tfnoa: 79 99 42
Sukalde-erakusketa: Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 43